

KOADERNOA

Daviden izarra Bruselan, ahularen aldeko etika? **XABIER IZAGA > 21**

ALZHEIMERRA IKERGAI: Kasuek ikaragarri egiten dute gora eta ikerketak ere areagotzen ari dira. **> 17**

2023ko urriaren 14a | XVII. urtea • 846. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ZENBAT GEHIAGO ITO BEHAR DIRA?

HAMAR URTE DIRA LAMPEDUSARA ITSASOZ IRITSI NAHIAN 368 PERTSONA HIL ZIRELA. EUROPA LARRITU EGIN ZEN, ORDURA ARTEKO TRAGEDIARIK LAZGARRIENA IZAN BAITZEN HURA. BAINA GAUZAK EZ DIRA ASKO ALDATU. MEDITERRANEOAK MUNDUKO HILERRIRIK HANDIENA IZATEN SEGITZEN DU. **> 4** Alessandro SERRANO | AFP



AEBetako Auzitegi Gorena;
aspaldiko epaile talde
eskuindarra lanerako prest **04**

(Anti)migrazioa; tragediak ere
galtzen ditu itsasoak, hamar urte
irtenbiderik gabe **07**

Mutiozabal Txo ontziola, iraganeko
Orio, gaurkora ekarria **12**

Alzheimer kasuek ikaragarri egin
dute gora eta ikerketa ere
areagotzen ari da **17**

Elkarrizketa: Juanjo Gabiña,
prospektiban aditua eta idazlea **22**

Elkar Sketch 12, marrazketa
maratoizaleek hitzordua daukate
Iruñean, urriaren 21ean **29**

Juantxo Egañaren behatzulotik **31**



SINADURAK:

- 03 Maite Ubiria Beaumont:**
Nortasunak eta bizitza duinak
garatzeko lurraldeak
- 10 Saioa Aginako Lamarain:**
Homeostasia
- 11 Iñaki Altuna:** Ziklo aldaketak
lurraldeka ondorio desberdinak
izan ditu
- 16 Amaia Ballesteros**
- 20 Leire Lareki eta Eneko**
Mendiluze: Eneagrama (III):
Hiruko instintiboa
- 21 Xabier Izaga Gonzalez:**
Daviden izarra Bruselan,
ahularen aldeko etika?
- 27 Miren Azkarate Badiola:**
Distopia errealitatea da jada
- 27 Amagoia Mujika Telleria:**
Iritsi da eguna, Joxemiel
- 30 Itsaso Rodriguez:** Adimen
artifiziala bai, baita energia
kontsumoa ere



{ datorrena } **Maite UBIRIA BEAUMONT**

Nortasunak eta bizitza duinak garatzeko lurraldeak

Justizia soziala ala identitate aldarrikapena? Bi xedeak kontrajarriak balira bezala, bata eta bestearen artean hautatzeko beharraren gainean eraiki dute haien diskurtsoa estatuaren indarra alde dutenek, beste estatua izateko asmo dutenak estuan hartzeko. Matraka horrekin iltzatu du ezkerak, berdin hexagonalak zein penintsularrak, eztabaida demokratikoari ihes egiteko bere asmoa. “Herritarren kezka beste nonbait daude”. “Inori ez zaio axola debate hori”. “Ez da tenorea”.

Onar dezagun beto politikoa atxikitzeko salmenta argudioak ez direla bereziki sakonak izan. Izan ere, harrokeriaz baino kezka behar genuke hartu aipaturiko diagnosis. Makina-gelak Euskal Herritik ehunka kilometrotara dituzten eragileek zutabe ahul horiek izanik ere, gure lurraldeetan gehiengoak batzeko zailtasun agerikoak badituzte ere, bilakaera politikoa baldintzatzeko borondate osoa erakutsi dutelako.

Hamarkadaz hamarkada bere supremazia eztabaiaezin bilakatu duen EAJk EAEko Hezkuntza Legearen gaineko adostasunak dardarka jartzeko hautua egin du bere sozio txikiaren aurrean men eginez, «ez ezkerrekoa ezta eskuinekoa ere» mantrari helduta.

Gutziz ulergarria da jatorriko adostasunari ezarritako autozuzenketak alarmak piztea. Adierazgarria den bezala aje zahar zein berriak direla medio, ika-mikatik harago, hezkuntza komunitatea deitzen zaion horrek eragiteko ahalmena galtzeko duen arriskua.

Periferiatik harriduraz baino gogaitasun puntu batekin begiratzen diogu aterabideak sortu ordez erronkak behin eta berriro arazo bilakatzen dituen lurralde eremuari. Nazio terminoetan, aurrerapen gehien eskuratzeko baldintza egokienak zituen EAEk. Hala sinetsarazi ziguten. Izan ere, sormen politikoaren ikuspuntutik gero eta zailagoa da hori defendatzea.

Litekeena da baten batek adierazpen hori baliatu nahi izatea garraztuen klubaren kide berria bereganatzeko. Urrutitik ere ez da hori lerro hauen asmoa.

Erakunde handiei begiratuta, subiranismoak duen inpregnazioari neurria hartzea ez da erraza, baina han eta hemen martxan diren egitasmo, dinamika, entsegu eta ahalegin ezberdinek horren berri ematen digute. Are, egun agerian agertzen diren deskonexio zantzuak, dudarik gabe, aldaketa lasai horren terminoetan beharko genituzke ulertu. Antsietatea baretuz.

Lurraldea. Egun, pausoka ibiliz aurrera egiteko aukerak eskaintzen dituen adostasunezko erreferentzia.

Lurraldea, hitzen gaineko gatazkak betikotu ordez, irribarra kutsatzeko gaitasuna duen artefaktua.

«Lurraldea adostasunezko erreferentzia da. Bere orokortasunean zehatza delako. Ekimen amankomunak ahalbidetzen ditu eta, tolestura guztiak aintzat hartzen direnean, marra gorriak zurbiltzen dira»

Bulegoetako maniobra gisa aurkeztu daiteke; demagun, Nafarroako udal eta kontzejuen federazioko presidentetzarako EH Bilduren alkate bat hautatzea. Alta, akatsa litzateke tamainako mugariak duen potentzialitatea hiper-partidismoaren lunetak ezarriak begiratzeko. Tolestura guztiak aintzat hartu gabe, lurralde terminoetan hausnartu gabe, eraldaketaren aukerak sortu bezala galera bilaka daitezkeelako.

Zazpi jauzi. Zazpi lurralde. Beste eredu posible zela aldarrikatu zutenek egiazaturiko ekimenak plazaratu zituzten, duela zortzi, Baionan. Alternantziari buruz aritzeak interes gutxi du, alternatiba erdigunean jarriz denok garaile ateratzeko aukera denean. •

AEB-ETAKO AUZITEGI GORENA

Aspaldiko epaile talde eskuindarrenak sakoneko gaien azterketari ekingo dio

JENDARTEA / Urtzi URRUTIKOETXEA

AEBetako Auzitegi Gorenak lan-urte berri bati ekin dio. Esku artean dituen kasuak zehaztu eta besteren bati lekua egingo dio epaile taldeak, ia ehun urtean egon den eskuindarrenak, Donald Trumpen agintaldian egindako izendapenen ondorio. Aurreikuspenak ilunak dira; neurri erreakzionarioak eta oinarrizko eskubideen kamustea.

AEBetako Auzitegi Gorenak lan-urte berri bati ekin dio, esku artean dituzten kasuak zehaztuz eta besteren bati lekua egingez. Ia ehun urtean egon den epaile-talderik eskuindarrenak osatzen du Gorenaren gaur egun, Donald Trumpen agintaldian egindako izendapenen ondorio. Haien eskutik iritsi da, esate baterako, abortu-eskubidearen babes konstituzionala galtzea, eta baita beste hainbat neurri erreakzionario ere. Hori aski ez, eta zenbait epaile eskuindar polemika-iturri izan dira, gero epaitu behar zituzten kasuetan zerikusia zuten milioidek oso opari garestiak egiteagatik, besteak beste.

Auzitegi Gorenaren lan-urtea urritik uztaile bitartekoa da. Lehen asteotan hamahiru kasu dituzte mahai gainean, eta beste 20 ere badituzte karpetan. Gerta liteke kasu horietakoren bat kanpoan geratzea, edo auzi berriren bat sartzea; otsailerako finkatu ohi da landu beharreko gaien zerrenda. Baina une honetan bertan esku artean dituzten auziak aski esanguratsuak dira herrialdeak bizi duen polarizazio-egoera ulertzeko, baita oinarrizko eskubideetako batzuek zer nolako arriskua daukaten agerian uzteko ere.

Gorenako epaileek berrikusi dituzten auzietako batzuek zerikusia dute herrialdeko etengabeko eztabaidekin, hala nola armak izateko eskubidea, gobernuaren boterea, arrazismoa eta adierazpen askatasuna. Instituzioa bera jende askoren jomugan dago, inoizko sinesgarritasun txikienarekin, herritarren %41aren babesa baino ez baitauka, inkesten arabera. Joe Biden AEBetako presidenteak berak urte judiziala amaitzean salatu zuenez, «historia hurbileko beste edozein auzitegik baino gehiago egin du oinarrizko eskubideak

eta oinarrizko erabakiak deuseztatzeko».

Azken lan-saioteko prozedurek are gehiago sakondu dute iritzia negatibo hori. Izan ere, botere izugarria daukan erakundea da, eta bertan dauden kideak bizi osorako daude, beren borondatez erretiroa hartu ezean. Duela ehun urte, AEBetako Kongresuak lege berezia onartu zuen, Gorenaren lan-karga murrizteko: bertaraino iristen ziren helegite guztiak onartu beharrez, Auzitegiak berak erabaki zezan zein kasu onartzen zituen. «Bere horretan, erabateko mugimendua izan zen. Epaileei ia erabateko diskrezioa ematen zitzaien espedienteen aurrean, eta horrek Gorenaren aldatzea eta indartzea lagundu zuen», esan du «New York Times»-eko Adam Liptakek.

Baina ia ehun urteren ostean, Auzitegiko epaileak urrats bat haratago joan dira: iristen zaizkien kasuetatik zein onartu eta zein ez hautatzeaz gain, auzi horietako zein

galderari erantzun nahi dioten ere erabakitzen hasi dira berriki. «Auzitegi Gorenak kasuak ebazten dituela diogu, baina hori ez da zuzena. Galdera zehatzak aukeratzen ditu erantzuteko, sarritan alderdiek proposatutako artean aukeratuz edo bere kabuz idatziz». Eta horrek, botere judiziala asko hurbiltzen du legegilerari, politika zehatzei buruz erantzuten baitute.

Azkenaldiko epai ezagunena da horren adibide: Dobbs. 2022ko ebazpen hark Roe indargabetu zuen, hau da, herritarren pribatutasun-eskubidea oinarri hartuta 1973tik indarrean egon zen abortuari buruzko babes konstituzionala. Baina Auzitegi Gorenak kasua ontzat eman zuenean, mahai gainean jarri ziren galderetako bakarrari heldu zioten, hain justu ere ia 50 urtez indarrean egon zen eskubide orokorra desegiteko balio zuenari. «Nahiz eta auzitegiak bazituen auzia ebazteko bide alternatibo batzuk, halako eztabaida eta zalapartarik sortu gabe, epaileek berariaz kendu zituzten alternatiba horiek beren irakurketatik», gogorarazi zuen Benjamin B. Johnson Zuzenbide Irakasleak berriki.

Azkenaldiko beste kasu polemiko bat, webgune batzuk diseinatzen zituen pertsona bati buruzkoa izan zen. Ezkontzera zihoan bikote homosexual bati diseinua ukatu zion, bere sinesmen kristauen aurka zihoala argudiatuta. Coloradoko legeak debekatu egiten du sexu-orientazioan oinarritutako bazterketa, baina, horren aurrean, diseinatzailearen adierazpen-askatasuna zegoela argudiatzen zuten haren aldekoek. Coloradoko legeak eta diseinatzaileak bere erlijioa adierazteko zuen eskubideak talka

Behean, Auzitegi Gorena, Washingtonen. Bertan hartzen diren erabakiek eragin zuzena daukate AEBetako herritarrengan. Mandel NGAN | AFP




egiten zutela izan zen Gorenari egindako galdera bat, baina epaileek hori baztertu eta adierazpen-askatasunari buruzkoa baino ez zuten onartu.

Aurrekari horien ostean, berri ere *cherry-picking* edo interesatzen zaizkien gaiak ez ezik, gai horietako galderak ere nahieran hautatu izana leporatzen diete Auzitegi Goreneko epailei lan-urte berri honetan. Eta litekeena da horrek ondorioak izatea mahai gainean dituzten gaiak buruz. Besteak beste, sektore kontserbadoreen zein eskuineko libertarioen bultzadari bide ematea, Gobernuaren eskuhartzea mugatuz eta herritarren babeserako eraturako agentziak indargabetuz edo haien lana mugatuz. Hauek dira gai horietako batzuk:

ABORTUA ETA PILULAK

Oraindik epaileen auzibide onartuen artean ez dagoen auzibide batek dauka arretarik handiena. 2022an abortuari buruz erabakitakoaren ondorioz, gaur egun haurdunaldiak eteten diren kasuen erdietan baino gehiagotan erabiltzen den pilula bat eskuragarri den ala ez ebatziko duten aukeratu behar dute. Mifepristona botikari buruzko auzia eskuetan hartzea erabakiz gero, Auzitegi Gorenaren onarpenak berak erabateko arreta piztuko du, azken ebazpena baino dezente lehenago.

Aurtengo apirilean Donald Trump presidente ohiak izendatutako Texasko epaile ultra bat aborturako pilula legez kanpo uzten saiatu zenetik, argi samar geratu zen gaia Washingtoneraino iritsiko zela. Erabateko nahasmen eta tentsio uneak izan ziren, eta argi geratu zen AEBetako kristau integristen programan ez dire-



la konformatzen 2022an Dobbs-ekin lortutakoarekin, babes konstituzionala kenduz eta estatuen erdiek abortua debekatu edo nabarmen murriztuz. Agendan are oztopo gehiago daukate sektore horiek, udaberrian Mifepristonaren erabakien inguruan egondako nahasmenak agerian utzi zuen legez: Texasko debekua, AEBetako helegitea, auzitegiek debekua kentzea baina Mifepristonari buruzko neurriak zorroztea (besteak beste, posta bidezko bidalketa galaraziz, hau da, gehien behar duten emakumei –abortua debekatu dagoen estatuetan, hirietatik eta kliniketatik urrun bizi direnei– bereziki eraginez).

«Auzitegi Gorenak kasuak ebazten dituela diogu, baina hori ez da zuzena. Galdera zehatzak aukeratzen ditu erantzuteko, sarritan alderdiek proposatutakoaren artean aukeratuz»

2022an abortuari buruz erabakitakoaren ondorioz, haurdunaldiak eteten diren kasuen erdietan baino gehiagotan erabiltzen den pilula bat eskuragarri den ala ez ebatziko dute

Gaur egun, haurdunaldia eteten den kasuen erdietan baino gehiagotan Mifepristone botika erabiltzen da. Gorenak erabilerari hori trabatu dezake.
GETTY IMAGES

Azkenean, Gorenak ordura arte bezala utzi zuen gaia, azken erabaki bat iritsi artean.

Gorenak kasua onartzen baldin badu, litekeena da ebazpen hori lan-urtearen amaieran iristea, ekain inguruan. Hau da, 2024ko hauteskunde presidentzialak baino hilabete batzuk lehenago. Iaz, demokraten porrota eta errepublikanoen garaien handia iragartzen zuten inkestek, eta ez zen halakorik gertatu. Adituen iritziz, abortueskubideari buruzko Gorenaren erabakiak nabarmen eragin zuen demokraten aldeko botoa aktibatzeke.

OPIOIDEN KRISIA

AEBetako Gobernuaren Justizia Sailak OxyContin botika egiten duen Purdue Pharma ekoizlearen bankarrota akordioa blokeatu nahi du. Opiazeoen krisiarekin diharduen botika-egileak milaka auzibide-salaketa jaso ditu. Bankarrota prozedura geldiarazi egin zuen Auzitegi Gorenak abuztuan, azken ebazpen bat argitaratu artean.

Auziaren sakonean dagoena ezaguna da: Sackler familia

Purdue Pharma farmaziaren bidez aberastu zen, OxyContin opioidea luze-zabal preskribituz eta salduz, eta botika horrek daukan izaera adiktiboak ezkutatu. Bidean, herrialdeak bizi duen epidemiarik larrienetakoa sortu zuten, ehunka mila lagun hil baititu. Auzitegietatik 2007an iritsi zitzaion enpresari lehen zigorra, baina apustua are gehiago igo zuten: salmentak areagotzera jo zuten, eta era berean, konpainia diruz hustera, familiako kideen patriketara bideratu. 2019rako dozenaka auzibide zituzten irekita, baina enpresaren mozkinak poltsikoratuta, bankarrota deitu zuten. Hala, 6.000 dolarreko kalte-ordainak adostu zituzten, baldin eta trukean, etorkizunean opioideei buruzko beste auzibiderik ez izatekotan. Baina Justizia sailak dio bankarrota-akordioak ezin duela etorkizuneko auzibideei eta erantzukizunei buruzko hitzarmenik jaso. Zehazki, AEBetako fiskal nagusiak dio, adostutako plana betetzen bada, «bide-orri bat» utziko duela «enpresa zein norbanako aberatsentzat, bankarrotaren sistema desitxuratu eta erantzukizun masiborik ez izateko».

ARMAK ERAMATEKO ESKUBIDEA

Konstituzioaren bigarren emendakina (herritarrek armak eramateko eskubidea babesten duena) aztertuko dute azaroaren 7an. "US vs Rahimi" kasuak auzitan jartzen du konstituzionala ote den armak eramateko debeku federala indarkeria matxistagatik urruntze agindua dutenentzat.

2020an dauka jatorria kasuak: Texasen, Zackey Rahimi izeneko gizona salatu zuten neska-lagun ohiak, eta urruntze-agindua ezarri zio-

ten; debekatuta zeukan emakumearengana eta haren haurarengana hurbiltzea eta armak edukitzea. Bestelako delitu batean lanean ari ziren agenteek Rahimiren etxera sartu eta miaketa egin zuteanean, baina, errifle bat eta pistola bat aurkitu zizkioten. Hala, legez kanpo armak izateagatik zigortu zuten, gizabanakoei su-armak edukitzea debekatzen dien legearen arabera; «debekua dute baldin eta lagun min bat jazartzea edo mehatxatzea galarazten dien agindu judizial baten mende badaude». Gizonak helegitea jarri zuen, baita irabazi ere.

Gaiak mahai gainean jarriko du 2022an Gorenak ezarritako aurrekaria. Orduko hartan, etxetik kanpo armak eramateko eskubidea are gehiago malgutu zuen Auzitegiak. Bidenen administrazioak argudiatu zuenez, «gubernuek aspalditik kendu dizkiete armak beste batzuk arriskuan jartzen dituztenei». Rahimiren abokatuek argudiatu dute, baina, iazko helegite auzitegiak hartutako erabakia –armak debekatzea ez zela zilegi, alegia– Auzitegi Gorenak 2022an ezarritakoa aplikatzea baino ez dela.

BOTO-ESKUBIDEA ETA ARRAZISMOA

Hego Carolinako legebiltzarrek kongresurako hauteskunde-mapa berria egin zuenean, beltzak nagusi diren barrutien mugak aldarazi zituzten. Helburua: demokratak gailenduko diren barruti bakarrean biltzea gehienak, eta gainerakoak errepublikanoek irabazteko errazago geratzea (*gerrymandering* deitzen zaio, mapak zure intereserako aldaraztea). Eskubide zibilen erakundeek (NAACP eta ACLU, kasu) gaia auzitara eraman eta irabazi egin zuten, baina estatuak Go-



Donald Trumpek herentzian utzi ditu Auzitegi Gorenean inoizko epaile eskuindarrenak.
Brendan SMIALOWSKI | AFP

reneraino ekartzea lortu du. Gehiengo eskuindarra nagusi izan arren, eta historikoki boto-emaileek abiarazitako auzibideen aurka egin arren gehienetan, joan den ekainean Alabamako salaketa baten alde egin baitzuten, *gerrymandering* praktikaren aurka. Oraingoa kasu zabalagoa da, eta motibazioak desberdinak, baina ondorioak antzeko praktikak gertatu diren beste dozena bat estatutara zabal litezke, eta baliteke 2024ko hauteskundeetan ere eragina izatea.

SARE SOZIALAK

Sare sozialak eta AEBetako konstituzioaren Lehen Emendakina/Zuzenketa (adierazpen askatasunari dagokiona) lanurte honetako beste gai garrantzitsu bat izango da. Epaileek onartu egin dute estatu gorriek (errepublikanoek) ezarritako helegitea, sare soziale-tako enpresek ez dezaten erabiltzaileak debekatzerik izan. Zehazki, errepublikanoek gobernatzen dituzten Texas eta Florida estatuak konpainia teknologikoen aurka jo zuten, Facebook eta Google bezalakoek erabiltzaileen iritzia blokeatzen zituztela argudiatuta.

2020ko hauteskundeetako emaitzak zalantzan jartzen zituzten, eta, bestelako gai batzuetan konspirazio-ideiak zituzten eskuineko jarraitzaileen adierazpenak zentsuratzen zirela ulertuta, erabiltzaileak blokeatzea debekatzen zuten legeak onartu zituzten bi estatu errepublikanoek. Teknologia-konpainiek, baina, ez zituzten legeok onartu, eta helegitea jarri zuten, arau horiek enpresen adierazpen-askatasuna urratzen zutelakoan. AEBtako Auzitegi Gorenak kasua onartu zuen irail amaieran, eta arretarik handienetako piztu duen gaietako bat da.

KONTSUMITZAILEEN BABESA

2008ko munduko finantza krisiaren ondoren, gehiegizko

maileguak eragozteko sortu zuen Kongresuak Kontsumitzaileen Finantza-Babeserako Bulegoa (CFPB ingelesez), Obamaren agintaldian. Horren ondorioz, hamarkada batean 12 mila milioi dolar berreskuratu dituzte herritarrek zorpetze-erakundeetatik. Baina errepublikano asko agentziaren aurka agertu dira hasieratik, bankuei eta bestelako mailegu-emaileei botere eta zama handiegia eta gehiegizko izapide burokratikoak ematen dizkiela argudiatuta. 2020an agentziaren lana mugatzea lortu zuten epaileen eskutik, baina auzibide gehiago irekitzen jarraitu zuten, Gorenera iritsi eta agentzia erabat hondoratzeko asmoz. Izan ere, 2010ean gehien-go zeukaten demokratek, eta haiek diseinatutako akordio bati jarraiki, CFPB ez dago Kongresuak onartutako aurrekontuen mende. Aitzitik, bermatuta dauka urtero AEBetako Erreserba Federaletik dirua jasotzea. Goreneko epaileek mahai gainean duten auzibideak finantzaketa-egitura horri aurre egiten dio, eta dirufuntsik gabe utz dezake agentziaren diru-kutxak. Hala balitz, indarrean diren finantza-arauetako batzuk kolokan gera litezke. Ondorioak oso larriak izan litezkeela salatu dute agentziaren aldekoek: berriz ere 2008koa bezalako krisirik gerta ez dadin, eta ohartarazi dute hura gabe ere, finantza-babes gutxiagorekin geratuko dira kontsumitzaileak. Hala, mailegu-emaileen eta zorren kobratzaileen jokabide engainagarri eta abusuzkoen aurrean baliabide gutxiago izango lituzkete kontsumitzaileek. Herritar txiroenei eragingo lieke batez ere, gutxiengo beltz, latino eta baztertutako herritarrek babesgabe utziz.

Mahai gainean jarriko dute 2022an Gorenak ezarritako aurrekaria. Orduko hartan, etxetik kanpo armak eramateko eskubidea are gehiago malgutu zuen Auzitegiak

2008ko munduko finantza krisiaren ondoren, gehiegizko maileguak eragozteko sortu zuen Kongresuak Kontsumitzaileen Finantza-Babeserako Bulegoa. Hori ere zalantzan da

(ANTI)MIGRAZIOA

Tragediak ere galtzen ditu itsasoak: hamar urte konponbiderik gabe

Arraste-ontzi batean harrapatuta ziren 500 bat emakume, gizon eta haur, itsasoan, Italiako Lampedusa uhartetik metro gutxira. Bidaiariak, eritrearrak gehienak, Tripolitik (Libia) abiatu ziren bi egun lehenago. Ilargirik gabeko zeru baten azpian, gizon batek zuzi inprobisatu bat piztu zuen, lehorrekoek antze-man zitzaten, eta, nahi gabe, su eman zion barkuan filtratu zen erregai-hondar bati.

Izuak hartuta, ontzia alderik alde zeharkatu zuten bidaiariek suak ez harrapatzeko eta, ondorioz, barkua irauli egin zen. 368 pertsona hil ziren. 2013ko urriaren 3a zen.

Zirrara eragin zuen Mediterraneoan, «munduko hilerrri handiengan», egun hartara arte erregistratu zen drama humanitariorik handienak. Hildakoen artean emakume bat eta haren haur jaioberria zeuden, oraindik zilbor-hestearekin lotuta.

📁 JENDARTEA / Maddi TXINTXURRETA

Hamar urte dira Lampedusara itsasoz iritsi nahian ziren 368 pertsona hil zirela. Europa larritu egin zen, ordura arteko tragediarik lazgarriena izan baitzen hura. Ez zen izan, baina, erreskate mekanismoak betikotzeko akuilu: geroztik, 22.000 pertsona hil dira Erdiko Mediterraneoan. NBEk horrelako tragediak berriz ez gertatzeko konpromisoa galdegin die estatu europarrei.

Handik zortzi egunera, Lampedusa eta Libia arteko itsaso zabalean beste ontzi bat hondoratu zen. Orduko horretan, bidaiari gehienak Siriako errefuxiatuak ziren, herrialdeko gatazkatik ihesi. 268 biktimetatik, 60 haurrak ziren.

Save the Children irabazi asmorik gabeko erakundearen arabera, Mediterraneoan hiltzen diren 100 pertsonatik 4 adin txikikoak dira. Gainera, Mediterraneoan zeharkatu nahian bizia galtzen duten haurren kopurua hazi egin da 2014tik. Heriotza guztien %1 ziren orduan; %4 dira gaur egun.

Ezkerrean, arropa eta buia gisa erabilitako hodia, ontzi batean utzita. Beheko irudian, Gur. Eskuinean, Mediterraneoan zeharkatzeko erabiltzen diren itsasontzien hondakinekin egindako egurrezko gurutzeak. Tiziana FABI | AFP

Tragedia hauek, hasiera batean, kontzientziak astindu zituzten eta Europako buruzagiek horrelakorik berriz ez gertatzeko neurriak hartuko zituztela hitzeman zuten.

Horrela, 2013ko urriaren 14an, gaur hamar urte, Mare Nostrum izeneko operazioa martxan jarri zuen Italiako Gobernua, orduan lehen ministro zen Enrico Letta sozialdemokrataren eskutik. Bilaketa eta erreskatetarako plan humanitario horrek indarrean iraun bitartean, Europara migratzeko Mediterraneo bide arriskutsua erabili zuten 150.000 per-

tsona inguruk onik zapaldu zuten helmuga.

2024ko azaroaren lehen bertan behera utzi zuen Italiak operazio hori, eta Frontex agentziaren Triton operazioak ordezkatu zuen. Honen lehentasuna, baina, ez zen bizitzak salbatzea: mugak kudeatzeko zeregina betetzen zuen, kostaldea patruilatuz eta lehorreratzea lortzen zuten asilo-eskatzailak ikertuz. Triton operazioaren ontziak ez ziren nazioarteko uretara barneratzen, non hainbeste pertsona hiltzen diren, soilik kostaldean behatzen zuten. 2015etik 2017ra, Triton operazioa artean indarrean zela –2018ko otsailaren lehen amaitu zen–, inoiz baino heriotza gehiago izan ziren Erdiko Mediterraneoan: 10.576, Migrazioetarako Mundu Erakundearen (MME) arabera.

NBE: «EZ DA AUKERA BAT»

Eta 2023a ari da izaten urterik hilgarriena 2017az geroztik. 2.500 lagun baino gehiago zendu dira Libia eta Tunisia Italia-ekin lotzen dituen Erdiko Mediterraneo bidean.




Jakina da: hamar urte igaro dira 2013ko tragediak gertatu zirenetik eta Europak ez du bere hitza bete. Gaur, 2013ko urriaren 3ko tragediak salbuespen izateari utzi dio. MME eta Errefuxiatuentzako NBEren agintziak (Acnur) emandako datuen arabera, Erdiko Mediterraneoko migrazio bidean 22.000 pertsona baino gehiago hil dira azken hamarkadan.

Orain, migrazio-gaietarako Nazio Batuen Erakundeko (NBE) agentzia nagusiek, Lampedusako tragediaren urteurrenarekin, deitoratu egin dute nazioarteko komunitateak oraindik ez diola aurre egin migrazio politiketik eragiten duten larrialdiari. «Ez dago tragediarik gabeko asterik, munduko txoko guztietan gertatzen dira, itsasoan edo lehorrean. Ikaragarri normalizatu ditugu», adierazi zuten pasaden urriaren 3an Amy Pope MMEko zuzendari orokorrak eta Filippo Grandi Acnurreko buruak. Tragediak saihestu daitzekeela nabarmendu zuten.

Zentzu horretan, berresan zuten bizitzak salbatzea ez dela «aukera bat», «legezko bete-beharra» baizik, eta bilaketa eta erreskaterako operazioak itxaron gabe abiatzeko deia egin zuten. Horrela, migrazio bideetan gertatzen diren tragediak saihesteko errezeta erakutsi zien estatu europarrei: erreskate operazioak antolatu, pertsonen migratzeko aukera «kriminalizatzeari» utzi, GKEen lana ez oztopatu edo migranteen bizitza arriskuan jarriko ez duten bide seguruak bultzatu.

«Gure erantzukizuna, komunitate global gisa, bidaia arrisksuetan daudenei laguntzea da, haiek eta haien familiek bizitza seguruagoa eta duinagoa izan dezaten», nabarmendu zuten MMEk eta Acnurrek elkarrekin egindako komunikatuan.



Bide honetatik, NBEk Errefuxiatuen Foro Global bat antolatu du abendurako, eta bertatik «konpromiso zehatzak» ateratzea espero du. «Orain, Lampedusaren hondoratzetik hamarkada bat igaro den honetan, ahalegin handiagoa egin behar dugu tragedia horiek berriro gerta ez daitezen», esan zuten.

HERRITARRAK: «NAHIKOA DA»

Herritarrek ere ekarri dute gogora 2013ko hondoratzea.

2023ko irailaren 14an hartutako argazki honek Hotspot izeneko zentro eragilea erakusten du, Italiako Lampedusa uhartean. Alessandro SERRANO | AFP

Lampedusaren erdialdean manifestazio bat egin zuten ehunka lagunek pasaden aste-ko asteartean, «Hildako ikusezinak, nahikoa da» idatzita zuen pankartaren atzean. Italiak Oroimenaren eta Harreraren Eguna ospatzen du urtero urriaren 3an.

Aurtengo zita, baina, berezia zen: batetik, urteurren borobila zelako eta, bestetik, ez zelako Lampedusara agertu Gobernu italiarreko ezein

ordezkari. Are, lehen ministroa, Giorgia Meloni, herrialdearen beste muturrera joan zen, Turinera, Eskualdeen Jaialdian parte hartzeko.

Bertan izan zen, aldiz, 2013an Lampedusako alkatea zen Giusi Nicolini. «Larritzat» jo zuen «hamar urte hauetan lehen aldiz» exekutiboko kide-rik uhartera agertu ez izana.

Egun horretan, halaber, Europako itsas misio bat abian jartzeko eskatu zuten herrita-

MELONIREN GOBERNUAK BEGIZ JOTA DU JUSTIZIA

Giorgia Meloniren Gobernuak inpartzialtasunik eza leporatu zion pasaden astean Cataniako (Italiako hegoaldea) Iolanda Apostolico epaileari, ezetsi egin zuelako Italiara migratu zuen pertsona talde bat atxikitze zentro batean atxilotzeko agindua, Gobernuak onartutako arau berrien aurka eginez. Melonik gogor kritikatu zuen magistratua, «demokratikoki aukeratutako

gobernu baten neurrien aurka egiteagatik». Adierazpenok magistratuak nahiz oposizioa haserretu ditu, eta «erakunde-borroka elikatzea» egotzi diote lehen ministro italiarrari.

Cataniako Magistraturaren Elkarte Nazionalak (ANM) Iolanda Apostolico epailea defendatu zuen, «legea errespetatuz lan egin duen pertsona zintzoa» dela esanez.

«Utzi egunero etsai baten bila aritzeari zuen erantzukizunak ezkutatzeko. Harrerako hondamendiaren erantzuleen bila bazabiltza, begiratu ispiluari: eskuinak idazten ditu argi eta garbi konstituzioaren kontrakoak diren legeak, eta gero bere lana egiten duten epaileekin haserretzen da», agertu zuen oposizioko eta Alderdi Demokratiko buruak, Elly Schleinck.

rrek, ur arriskutsu horiek pa-truilatzea helburu, Mare Nostrum operazioarekin egin modura.

GKEAK «ZENBAT GEHIAGO?»


Ildo beretik, Italiako Mugarik Gabeko Medikuen (MGM) programa-zuzendariak, Marco Bertottok, salatu zuenez, Mare Nostrum erreskate operazioaren amaieraz geroztik, «Italiako eta Europako agintariek ez dute neurri bakar bat ere hartu itsasoan salbamentu lanak indartzeko eta Mediterraneoko tragedia-segida modu zehatz eta eraginkorrean mugatzeko».

Bertottok azpimarratu zuen ezinbestekoa dela Europako Batasuneko estatu kide bilaketa- eta erreskate-plan berri bat bultzatzea, «politika ausartagoak» egon arte bederen, migrazio bide seguruak bermatzeak behar bailuke helbururik behinena, bere aburuz.

«Zenbat pertsona gehiago ito behar dira norbaitek norabide egokian zerbait egin dezan?», galdetu zuen Juan Matias Gil MGMren itsasoko bilaketa- eta erreskate-lanen arduradunak. Gogorarazi zuen, halaber, Nazioarteko Zuzenbideak heriotza-arriskuan dauden pertsonak laguntzea behartzat duela.

«Giza Eskubideen gutxieneko estandarrak errespetatzen ez dituzten herrialdeekin zenbat negoziazio, zerrenda eta amarru, hitz, eslogan, aldarrikapen, memorandum eta akordio ez-moral eta ez-gizatiar egin behar ditugu migrazioa azkenean seriotasunez, heldutasunez eta, batez ere, gizatasunez eztabaidatu baino lehen?», planteatu zuen.

Bestalde, Open Armsek zehaztu zuenez, «Italian eta Europan kolore guztietako



gobernuak izan dira elkarren segidan, baina Mediterraneoan jendea itota hiltzen ari da». GKE honek sinadura bilaketa bat bultzatu du X sare sozialaren bitartez auzi honi buruzko ikerketa-batzorde bat eskatzeko.

Hain zuzen ere, Lampedusa-ko tragediaren urteurrenetik bi egunera, hilaren 5ean, Italiako agintariek 20 eguneko blokeo bat agindu zuten Open Arms ontzi humanitarioaren kontra, Marina de Carrarako

Save the Childrenen arabera, Mediterraneoan hiltzen diren 100 pertsonatik 4 adin txikikoak dira. Gainera, bizia galtzen duten haurren kopurua %3 hazi da 2014tik

«Gure erantzukizuna, komunitate global gisa, bidaia arriskutsuetan daudenei laguntzea da», nabarmendu zuten MMEk eta Acnurrek elkarrekin egindako komunikatuan

Ezkerrean, Olaf Scholz kantziler alemaniarra; eskuinean, Giorgia Meloni lehen ministro italiarra, biak ala biak Granadan egin zen EBeko goi-bileran. Kai NIETFELD; Francisco J. OLMO | EUROPA PRESS



(Italiako ipar-mendebaldea) esleitutako porturantz nabigatzen ari zela erreskate batzuk egiteagatik. Blokeoaz gain, 10.000 euroko isuna ezarri zieten GKEari.

EB, KONTRAKO BIDEAN

Bitartean, Europako Batasuneko (EB) negoziazioak NBEk, herritarrek eta GKEek eskatzen dutenaren kontrako bidetik doaz. Hiru urtez eztabaidatzen aritu ondoren, 27 herrialdeek migrazio-ituna osatzeko akordioa erdietsi zuten hilaren 4an, Granadako goi-bilera baino bi egun lehenago.

Italiak, migrazioa ekiditeko neurri zorrotzagoen aldeko, eta Alemaniak, migrantei babes gehiago eskaintzearen defendatzaile, lortutako azken orduko akordioa ez da migranteen mesederako.

Araudia, oraindik ere Europako Parlamentuan eztabaida-

tu beharrekoa, gehiengo kualifikatuarekin onartu zen, Austria, Eslovakia eta Txekiar Errepublikaren abstentzioekin, eta Polonia eta Hungariako oposizioarekin.

Onartutako testuak asilo-eskaeren onarpena are gehiago murrizten du, babes eskaeren prozesatze-denborak luzatzen ditu eta EBn sartzea zailtzen.

Gainera, Giza Eskubideen alde lan egiten duten GKEek ohartarazi dute araudi berri horrek bide eman dezakeela migranteen eskubideak gehiago urratzeko. Salbamendu-lana ere zaildu dezakeela nabarmendu dute.

Hala, hamargarren urteurren honetan, Lampedusako tragedia itsasoan galduta segitzen duen bitartean, Europako agintariek bidea ireki dute, tantaka edo saldoka, 368 gorpuen (h)ondora gal daitezkeen datozen bizitzak ere.



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Piskoterapeuta

Homeostasia

Egokitzapenak, norbanakoari hainbat girotan bizirauten eta moldatzen laguntzen dion heinean, lotura estua du gizabanakoaren garapen psikologikoarekin. Gainera, pertsonaren eta kanpoko ingurunearen artean harreman bat da; izan ere, pertsona hori bere ingurunera bakarrik egokitzen da, berak egiten dituen kontzepzioen arabera hura eraikitzea lortzen duen heinean. Hau da, gizakiaren egokitzapen-prozesua ingurunearen baldintzetara egokitzeko gizabanakoaren erreakzio gisa uler daiteke. Askotan aurre egin behar izaten diogun arazoa da aldaketak ustekabean gertatzen direnean eta ez zaigunean egoera berria gustatzen.

Badago zalantzarik gabeko gertaera bat: bizitza aldaketa da. Gauzak diren bezalakoak dira, bizitza datorren bezala dator, eta egokitu egin behar da. Ez da gauza bera hiriz aldaketa edo lana galtzea, ezta euritako bat galtzea ere. Baina, edonola ere, egoera berrira egokitzeko, ikuspuntua aldatzeko eta mentalki egokitzeko modua bilatu behar da. Hori saihesten saiatu arren, aldaketa gure bizitzan sartuko da, eta ezer ez egiteak ez du ezer saihesten. Hala ere, aldaketa geure borondatez hasteak kontzienteki egokitzeko aukera ematen digu. Horrela, egoera berri hori bizitzeko behar duguna egin ahal izango dugu. Etengabeko fluxu horretara egokitzen jakitea funtsezkoa da osasunean eta ongizatean.

Egokitzapenaren funtsezko oinarria da dena aldatzen dela ulertzea. Horrek, gauza guztien gaintik, gure portaerak, pentsamenduak eta emozioak aldatzeko gai izatea eskatzen du. Gure ingurunera egokitzeko informazioa eskuratzea funtsezko prozesua da. Ikastea gure jaiotzan hasten den bidaia bat da, adin nagusira arte praktikatu duguna. Horrek jokabide-aldaketak, ikuspegi mental berriak eta garapen neurologikoa bera ere eragiten dizkigu. Ezagutza berritzaileak integratzeak hazteko, arazoak konpontzeko, gure errealitatea eraldatzeko eta erronkei hobeto aurre egiteko aukera ematen du.

Gaur egun, inor ez da hiltzen inguruan dituen eskaeretara ez egokitzeagatik,

baina nahasmendu depresiboak eta antsietatea izateko arrisku handiagoa dugu. Hori gertatzen da egokitu ezinak sufrimendua dakarrelako, aldatzeari uko egiten diona zapuztu eta haserretu egiten delako, errealitateak bere nahiei erantzuten ez dielako. Gizakiarengan aldaketarekiko erresistentzia behar besteko arretarik jartzen ez diogun faktorea da. Batzuetan, hain errotuta dago eta gure potentzialari eta ongizateari hainbeste traba egiten dio, non patologikoa izatera iristen baita. Egoera horietan, aldaketarekiko beldurra bizitzeko esperientzia bera baino beldurgarriagoa da.

Inork ez du esaten helbururik izan behar ez dugunik, baina asmo horiek ezin dute beti aurrean dugun errealitatea alboratu. Ez dezagun ahaztu batzuetan aurre egiteko ausardia handia behar dela, frustrazioarekiko eta ziurgabetasunarekiko erabateko tolerantzia. Erosoa da edozein lekutara irtetea, atzean uzten dugun guztia txukun dagoela jakinda. Baina bizitza ez da soilik segurtasun kontua edo dena lotuta edukitzea, arriskuarekin bizitzeko trebetasuna ere bada. •

saioaaginako@gmail.com



Egokitzeko gaitasuna gizakiaren ezaugarri garrantzitsua da. GETTY IMAGES

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Ziklo aldaketak lurraldeka ondorio ezberdinak izan ditu

Data bat jartzearen, 2011ko urriaren 17a nabarmendu beharko genuke. Gertaera bat jartzearen, egun horretan Donostian izandako Gatazkaren konponbidea sustatzeko nazioarteko konferentzia-alegia, Aieteko Konferentzia- gogoratu beharko genuke. Hortxe kokatu baitaiteke Euskal Herriko egoeran izandako sakoneko aldaketa, nahiz eta aldaketa hori ez zen egun batetik bestera gertatu.

Zenbait arazok (gatazkaren ondorioak) eta korapilo nagusiak (nazio auzia) irauten badute ere, ziklo ezberdinen arteko mugarrak finkatzen dute data eta gertaera haiek. Haien ondotik eta ondorioz, mugimendu politiko, sozial eta instituzional esanguratsuak izan dira gurean, egia bada ere garai berean mundua astindu duten gertaerak -pandemia, klima larrialdia areagotzea eta gerrak, nagusiak aipatzearen- Euskal Herriko gatazka txiki samar uzten ari direla.

Errealitate orokorra gorabehera, azken hamarkadan egiazko aldaketak izan dira Euskal Herrian, eta esan bezala, horiek Aieteko Konferentziak erdietsitakoarekin dute lotura estua. Nabaria izan zen Donostiako Jauregian zuzenean bizitakoak Ipar Euskal Herriko ordezkariengan izan zuen eragina. Klik egin zuten eta, adostasunaren bidetik, Ipar Euskal Herrian garai berri bat abiarazi zuten. Horren adibide, instituzionalizazioaren bidean egindako urratsa edo armagabetzean hartutako konpromisoa.

Ziklo aldaketaren uhinak Nafarroara ere iritsi ziren, Euskal Herriaren nazio proiektuaren kontra bertan eraikitako erregimen gotorraren kalterako. Mugimendu herritar eta sozialek sortutako girotik, ezinezko ziduen gobernu aldaketa etorri zen. Hamar urte egingo ditu legealdi honetan UPNk gobernutik kanpo. Alabaina, erregimena eraitsi dela esatea gehiegitxo da

oraindik, eta arazo larriak begien bistakoak dira; esate baterako, euskarak jasaten duen egoera. Eta horregatik ere bada inportantea hasi berri den legealdi hau.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren lehendakaria hautatzeko bozketan izan da azken berria. Lehen aldiz EH Bilduko ordezkari batek hartu du kargua, lehen aldiz PSNk horrela eman duelako boza. Gertaera berez da albiste, baina are garrantzitsuago bilaka daiteke segidarak badu, Espainiako presidentearen inbestidurak eragindako testuinguruan.

Azken hamarkada luzean, ordea, bada paralisi politikoa trinkotu den lekurik. EAEko erakunde autonomikoetan, hain zuzen ere. Ibarretxe gobernuburu zela, eremu horretan izan ziren mugimendu eta eztabaida nabarmenenak. Oso bestelako norabidea hartu zuen Iñigo Urkulluk, PSE beti lagun. Legebiltzarran estatus politikoaren eztabaida abiatu, eta lehen

Azken hamarkada luzean, ordea, bada paralisi politikoa trinkotu den lekurik. EAEko erakunde autonomikoetan, hain zuzen ere

akordio bat ere lortu zen, baina esku-frenoa kendu gabe, berriro ere, unionismoak baldintzatuta, bazterrean geratzeko. Oraintxe Hezkuntza Legearen eta hizkuntza erduekin gertatzen ari denak *déjà vu* sentazioa piztu digu. Ea argitzen duten PSEk eta EAJk.

Eguneroko kudeaketagatik jasotzen ari dira kritika Urkullu eta EAJ. Erreakzioa bitxia izan da, bitxia eta kezagarria aldi berean, hausnarketa, autokritika eta zuzenketa galarazten dituelako. Konspirazio baten biktima omen dira. Ez dirudi abiapuntu egokia garai honek izan ditzakeen ahalmen guztiak aprobetxatzeko. Erronkak ate joka daude. •



MUTIOZABAL TXO ONTZIOLA, IRAGANEKO ORIO, GAURKORA EKARRIA

Andoni URBISTONDO

Txo esaten zaio ontzian hasiberri den marinelari, ikasteko asko duenari. Mutiozabal Txo Ontziola da Orion martxan jarri duten proiektuaren izena, eta hurbiltzen diren gaztetxoei iraganeko Orio erakutsi nahi die, ontzioletan aberatsa zen erriorearen bueltako herri hura.

Iraganeko Orio XXI. mendera ekartzeko ahaleginean ari da Albaola elkarte Mutiozabal Txoren Ontziola ekimenarekin. Ontzigitza funtsezko industria jarduna izan zen herri hartan gizaldi batzuk atzera, eta heziketa proiektua sortu eta garatzen ari dira herriko ikasleekin: egurra ukitzen eta sentitzen erakusten diete, ontziolak eraikitzeko lanean protagonista senti daitezzen. Sustraietara egin dute jauzi, adaxka gazteak sortu eta etorkizuna aberas-

Goiko irudian, ontzian
topa daitezkeen
materialetako zenbait.
Teoria zein praktika
egiten dute ikasleek eta
egurrarekin lan egiten
dute tailerrean.
Gorka RUBIO | FOKU

teko. Ikasle gazteak ari baitira denean irrikatsuen.

Eider Arrutik Orioko bi ikastetxeetako ikasle gazteen arreta erakarri du, ontzi txiki baten atalak azaltzen dizkien bitartean: toletea, branka, popa, tosta, istriborra... Itribor eta ababor terminoen azalpenekin aho bete hortz geratu dira 10-12 urteko ikasleak, oraino ezker-eskuin hitzak bakarrik ezagutzen dituztelako. Arruti Albaola elkarteko kidea da, Mutiozabal Txoren Ontziola proiektuko ardurduna, eta ontzigitzan ezker eta eskuina ezin direla erabili azaldu die, une batean eskuina dena ezker izan baitaiteke.

Alor teorikoa lantzen du Arrutik, eta alor praktikoa Iñigo Luzuriaga arotzak. Orioko historia eta tradizioa berresku-

ratzeko ahaleginean dabilta azken bi urteetan, ikastoletako gazteei ontzigitzak kostaldeko herri horretan izan zuen garrantziaren berri emanez. Izan zirenari balioa ematen eta ondarea ez desagertzeko bitartekoak jartzen saiatzen dira.

Iaz hasi ziren ekimena garatzen, pandemia bukatu ostean, berez proiektua pandemia aurrerako prestatua baze- goen ere. Arrutiren hitzetan, «ikasleak etortzen direnean sarrera orokor bat egiten dugu, gure proiektua zertarako den, zergatik sortu genuen. Bi talde egiten ditugu. Bat teorikoa, ontziolako atalak eta beste azalduz, eta bestea praktikoa, arotzarekin aritzen direna: ontzian nola eraikitzen den ikasten, ontzia bera egiten ikasten dute alor praktikoa ikasleek».

Orioko bi ikastetxeetako ikasleak bertaratzen dira Oria ibaia zeharkatzen duen zubiaren bestaldean dagoen ontziolara. Ikastetxeari unean-unean komeni zaion gaitegira moldatzen saiatzen dira Albaolako kideak. Hasiera batean LH4. mailatik DBH2ra bitarteko ikasleekin hasi ziren. «Harrera oso ona izan zen eta DBH4ko ikasleak ere dinamikan sartu genituen», azaldu du Arrutik. Iaz 400 ikaslek parte hartu zuten denera proiektuan, Orioko bi ikastetxeetako ikasle gehientsuenak.

Proiektuaren zutabeei buruz mintzatu zaigu proiektuko arduraduna: «Alor asko, ofizio asko lantzen dira, ontzigintzak transbertsalitate handia baitauka. Alor gehienek zerikusizuzena dute ikasleek lantzen dituzten gaiekin: logika, matematika, ingurunea: egur motak, natura, ibaia...». Lehen ikasturtea bukatuta, ontzi txiki bat uretaratu zuten Orion, ontziola atarian, Oria ibaiko errioan.

Pasa den udaberrian izan zen, baina ekimenaren helburua ontzi bat uretaratzetik harago omen doa. Hala dio

«Alor asko, ofizio asko lantzen dira, ontzigintzak transbertsalitate handia baitauka. Alor gehienek zerikusizuzena dute ikasleek lantzen dituzten gaiekin: logika, matematika, ingurunea: egur motak, natura, ibaia...»

«Pantailen belaunaldikoak dira oraingo ikasleak, eta haiek gabe artisau munduan nola murgiltzen diren ikustea, sortzen den aura berezi hori, oso polita da. Poz-pozik etortzen dira ontziolara, eta isil-isilik, adi-adi egoten dira»

Behean, Iñigo Luzuriaga arotza ikasleei azalpenak ematen eta ontziolaren ikuspegi orokor bat.
Gorka RUBIO | FOKU

Arrutik: «Historia berreskuratzen eta zabaltzen saiatzen ari gara, umeen, ikasleen parte hartzearekin, jendartea sentsibilizatzen. Oriok mende batzuk atzera izan zuen ontzigintza sektore indartsua ezagutarazteko bitartekari izan nahi dugu». Arrutik atsekabez dio Orion badela jendea, oraindik, jarduten duten eraikina ontziola dela ez dakiena: «Tristeza da, belaunaldien artean haustura baitago ontziolen inguruan. Ikasle hauek badakite zer egiten zen, nola, eta hutsune handi hori estaltzen joan nahi genuke pixkanaka, Orio ontzigintzan potentzia bat izan baitzen».

Proiektuak halako magia berezi bat sortzen du ikasleen artean. Egurra ukitzen dute, landu, zulagailua eta iltzeak erabili; ontziola bat benetan nola sortzen den ikasten dute, azken finean.

Miren Aristi Zaragueta ikastetxeko irakasleak ere gozatu egiten du ikasleekin ontziolara joaten denean: «Pantailen belaunaldikoak dira oraingo ikasleak, eta haiek gabe artisau munduan nola murgiltzen diren ikustea, sortzen den aura berezi hori, oso polita da. Poz-pozik etortzen dira ontziolara, eta isil-isilik, adi-adi egoten dira». Irakasleak ere pozik, noski.

KLASEA BUKATU EZINIK

Ontziolako jarduna hain da ikasleentzat erakargarria, ezen ez baitute klasea bukatutzat eman nahi izaten. Alegia, egin beharreko orduak eginda ere, ikasten edo praktikan murgilduta jarraitzeko nahia agertzen dute. Arrutik ñabardura interesgarria egin du: «Gertatzen da klasean mugituenak diren ikasleak, arazo gehien sortzen dituztenak, besteak baino gehiago inplika-





tzen direla. Normalean haiek izaten dira onenak».

Aristi irakasleak ere ontzian ematen den beste egoera bat nabarmendu nahi izan du: «Sozialki klase barruan sortzen ez diren harremanak sortzen dira ontzian. Klase barruan elkarrekin harremanik ez duten ikasleak harremana dute ontzian. Hobeto eza gutzen dute elkar, beste lotura bat sortzen da euren artean». Ikasle gehienak oriotarrak dira, baina badira atzeritarrak direnak, eta beste herri batzuetatik etorri direnak, «eta horiei herriko historia eta tradizioa jakinaraztea polita da». Zaragueta ikastetxearen helburua ikasleak euskal curriculum-era hurbiltzea dela dio irakasleak,

«ikasleak gure kulturara, historiara, gerturatzea. Parisko Notre-Dame katedrala ezagutzen dugu, baina herriko gotikoa ez. Gure ikasleek gure historia ezagutzea oso garrantzitsua da. Ontzigintza oso garrantzitsua izan zen Orion ekonomikoki eta sozialki, eta ezinbestekoa da ikasleek ontziola eta bertan egiten zena ezagutzea».

Ikasleak gustura egotearen meritua Iñigo Luzuriagarena da; Iruñean arotz lanbidea ikasi eta Oriora mugitu zen, ontziolaren ekimenak erakarrita. Ekimeneko alor praktikoaz arduratzen da Luzu. Iruñean eraiki zuten ontziaren proiektua, Donibane auzoan, eta lan harekin gustura, Gipuzkoako kostaldera egin zuen jauzi: «Mundu kuriosoa

Haurrak ontzian egurrekin lanean, eta sokekin. Eskuekin lan egiten dute, eta oso aberasgarria izaten da.
MALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA

da, asko ikasi dut. Txikiekin murgiltzea polita da. Praktikoagoa den hezkuntza beti da erakargarriagoa; hobeto barneratzen dituzte kontzeptuak, eta ni horren aldekoa naiz», esan du. Ikasle taldeak fase ezberdinetan eramaten dituzte ontziolara: ontzia eraikitzea, margotzea... «Saiatzen gara etortzen diren egunean informazio ahalik eta osatuena ematen, proiektu osoaren inguruan jakin dezaten».

Lehen uretaratzea pasa den udaberrian egin zuten, eta pasa den asteburuan festa jendetsua egin zuten Orion, ontziolen ondarea berreskuratzeko lanean. Eraikuntzan parte hartu zuten ikastetxe bakoitzeko bi ikasle gonbidatu zituzten beraiek eraikitako ontzian nabigatzera, beraiek egindako lanaren errekonozimendu moduan.

«Gure ikasleek gure historia ezagutzea oso garrantzitsua da. Ontzigintza oso garrantzitsua izan zen Orion ekonomikoki eta sozialki, eta ezinbestekoa da ikasleek ontziola eta bertan egiten zena ezagutzea»

«Ikasle txikiekin murgiltzea polita da. Praktikoagoa den hezkuntza beti da erakargarriagoa; hobeto barneratzen dituzte kontzeptuak, eta ni horren aldekoa naiz», esan du Iñigo Luzuriagak, proiektuko arotzak

AGINAGAKO MUTIOZABAL FAMILIA

Ontzigintza industria jardunaren jatorria erriean gora dago, Usurbilgo Aginagan (Usurbilgo auzoa, ofizialki). Eider Arruti: «Mutiozabaldarrak Aginagako baserri bateko ontzigileak izan ziren. Hirugarren belaunaldia Oriora etorri zen, eta hemen ontziola, altzari fabrika eta etxebizitza egin zituzten Oria ibaia zeharkatzen duen



zubiaren bestaldean. Kontserba-industria bat ere bazegoen, bere garaian. Alabaola elkarteari esker dakigu Pasaiak zein garrantzia izan zuen ontzigintzan, baina Oriok, unerren batean Pasaisa baino garrantzi handiagoa izan zuen ontzigintzan. Antzina, Aginagan hasi eta Orioraino, 12 ontziola zeuden», bota du harro.

Orioko ontzigintzak eta erriok izan duten garrantzia balioan jartzeko gogotsu dira Albalako kideak: «Herrian sumatzen da natura horrekiko halako deskonexioa. Antzina Orioko ertzak ontziz beteta zeuden, eta oriotar guztiek zekiten nondik nora joan behar zuten erriok, sakona ez jotzeko. Gazteek hartu eta gora

eta behera ibiltzen ziren erriok. Hori orain galdua dago, eta berreskuratu egin nahi genuke, pixkanaka, aisi moduan. Oriori zeukana bueltan emateak motibatzen gaitu».

Ekimen honi Mutiozabal Txoren Ontziola izena jarri zioten. Berezia, ez bairik gabe. Hauxe kostatik urrun bizi direnentzat, eta ontzigintzan trebatuak ez direnentzat azalpena, Arrutiren hitzetan: «Txo da ontzietan lanean hasten zen marinel ikaslea. Txo gaztetxoari ematen zitzaion izendapena da, eta ontziola hau ikasleei zuzenduta dagoenez, ekimenari izen hori jartzea erabaki zen». «Piritx, Porrotx eta Marimotots» paila-zoek ere, bere garaian, Txo pertso-

Mutiozabal ontziola Orioko tren geltokiaren parean dago. Bertako hezkuntza proiektua emaitza onak ematen ari da.
Gorka RUBIO | FOKU

«Parisko Notre-Dame katedrala ezagutzen dugu, baina herriko gotikoa ez. Gure ikasleek gure historia ezagutzea oso garrantzitsua da. Ontzigintza oso garrantzitsua izan zen Orion ekonomikoki eta sozialki»

Ikasturte berri honetan Euskal Herri osoko ikastetxeetara zabaldu nahi dute hezkuntza eskaintza: «Esperientzia hau kostako zein lehorreko ikasleentzat ikasketa interesgarria dela badakigu»

naia sortu zutela dio Arrutik, Alabaola elkartearen gogoan.

Ekimena hasi zen, eta itxura ona du, harrera bikaina izan duelako Orion. Lutzerako izango al da? Arruti: «Erakundeak pozik daude, udaletxea era bai, gu eta Alabaola zer esanik ez... Hezkuntza proiektu hau egonkortu nahi dugu aurrera, urteen joan-etorrian ontzi batzuk uretaratu, eta ondoren beste atal batzuk lantzen hasi: ontzi tradizionalea, adibidez. Haien kontserbazioan ere sakondu nahi genuke».

Ahotsak elkartearekin ere elkarlanean ari dira, kapitaina izan zen oriotar agure baten testigantza jasotzeko. «Berak kontatuko didana ez dit liburu batek kontatuko, eta giza-ondare hori oso inportantea da», dio, zintzo, Arrutik. Kontzertuak, dokumentalak... Kontu asko dituzte buruan: herria eta herriaren historiari balioa emango dioten ekimenak. Orain arte Orion bakarrik eman dituzte eskolak, «ontziola hemen dagoelako», baina ikasturte berri honetan Euskal Herri osoko ikastetxeetara zabaldu dute hezkuntza eskaintza: «Esperientzia hau kostako zein lehorreko ikasleentzat ikasketa interesgarria dela badakigu». Asmoa eta erronkak botata daude!



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



ALZHEIMERRA IKERGAI

Kasuek ikaragarri egiten dute gora eta ikerketak ere etengabe argitaratzen dira

Azken hilabeteetan alzheimerren inguruko albiste deigarriak pirlatu egin dira komunikabideetan. Herrialde industrializatueta jendartearen batez besteko adinak gora egin ahala, gaixotasun horren eragina gero eta nabarmenagoa da gure artean, eta ikerketa munduak ere ez dio bizkar eman egoera horri.

Lehenik, datuak. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) aurtengo datuen arabera, munduan 55 milioi pertsonak baino gehiagok du demenzia arazoren bat, eta urtero 10 milioi kasu berri diagnostikatzen dira. Horien artean, alzheimerra da gaixotasun ohikoena, demenzia kasu guztien %60-%70. Hil kortasun kausei dago kienez, zazpigarren postuan dago demenzia, baina adineko pertsonen desgaitasun eta dependentzia kasuen arrazoi nagusia da.

OMEk alzheimerrak jendartearen duen inpaktu ekonomikoa ere aipatzen du bere txostenean, eta bereziki emakumeengan duen eragina nabarmen tzen du, gaixotasuna izateko arriskuagatik –bizi-itxaropen luzeagoari lotuta batez ere–, baina baita zaintza lanez arduratzen direlako ere –orduen %70 aipatzen du–. Urte gutxian, 2050erako, kasuen kopurua bikoiztu edo hirukoiztu egin litekeela ere aipatzen du, herrialdearen arabera.

Euskal Herrira etorruta, alzheimerra da demenziaren kausa nagusia 65 urtetik gorako kasuan. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 2021ean talde horretan zeuden 481.363 pertsonen artean, 48.000 lagunek demenzia motaren bat zeukaten. Eta ho-

📁 **OSASUNA /** Asier AIESTARAN

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, urtero 10 milioi alzheimer kasu berri diagnostikatzen dira, eta ez dirudi etorkizun hurbilean kopuruak behera egingo duenik. Industria farmazeutikoa hortzak zorrotuta dabil sendagai baten bila, eta ikertzaileentzat erronka handia bilakatu da. Euskal Herrian ere bada mugimendua.

rietako %70ek (36.600 lagun inguruk) alzheimerra zeukaten. Alzheimerrek jotako gaixotari arreta eskaintzeko lanak gutxi gorabehera urtean 31.000 euroko kostua zeukan familia batentzat, eta gaixotasuna gertutik bizi duten familiek urtero 1.400 milioi baino gehiago erabiltzen dituzte haien senideak zaintzeko.

Nafarroan, 2019ko datuen arabera, 5.527 pertsonak zuten diagnostikatuta demenzia motaren bat, 1.624 gizonek (%29,4) eta 3.903 emakumek (%70,6). Horietatik %70 alzheimer kasuak ziren. Hori bai, Nafarroako Gobernuak nabar-

mentzen zuenez, diagnostikatu gabeko kasuen kopurua oso aintzat hartzekoa da, %50 ingurukoa. Ipar Euskal Herriko datu zehatzik aurkitzerik ez dugu izan, baina frantziar Estatuan 900.000 pertsonak alzheimerra zutela argitaratu zen 2020an, eta urtero 225.000 kasu berri diagnostikatzen direla.

ZERGATIAK IKERTZEN

Bistan da alzheimerrek suposatzen duen osasun arazoa handia dela, eta agian horregatik, etengabe iristen zaigu gaixotasunaren inguruko ikerketen berri. Azkenetako bat Achucarro euskal zentroari atxikitako

Alzheimerren eragina gero eta nabarmenagoa da gure artean, eta ikerketa munduak ere ez dio bizkar eman egoera horri.
NAEBLYS | GETTY IMAGES

Amaia Arranz Ikerbasqueko ikertzailea partaide duen nazioarteko taldearena da, "Science" aldizkarian argitaratu berria, eta gaixotasunaren ezaugarrietako bat den neuronen heriotza argitzen lagundu dezake.

Ikerketa talde honek giza-neuronen eta saguaren neuronen transplanteak egin zituen alzheimerren gaixotasuna zuen sagu-eredu baten garunean. Emaizak harrigarriak izan ziren: giza-neuronetan baino ez ziren agertu gaixotasunaren markatzaileak, hala nola Tauren fosforilazioa, haril neurofibrilarrak eta, garrantzitsuenak, heriotza zelularra. Era berean, eredu horretako giza-neuronek MEG3aren adierazpen sendoa zutela ikusi zuten, eta RNA ez kodetzaile honen maila altuak alzheimerra duten pazienteengan ere agertzen dira. MEG3aren adierazpen altu hau giza-neuronen heriotza zelularrarekin lotuta dago. Zehazkiago esanda, MEG3ak "nekroptosia" deritzon heriotza zelularra eragiten du giza-neuronetan, zelula horien behin betiko galera eraginez.

«MEG3aren eta giza-neuronen nekroptosian duen egin-kizunaren identifikazioari esker, sakonago ulertu ahal izango dira alzheimerren gaixotasunaren azpian dauden mekanismoak, eta horren harira, MEG3 helburu garrantzitsua izango da alzheimerra duten pazienteen neuronen heriotza prebenitzea xede duten etorkizuneko ikerketa eta terapietan. Garrantzi handiko aurkikuntza da, izan ere, heriotza neuronala alzheimerren gaixotasunaren ezaugarri nagusia da, pazienteen defizit kognitiboen eta demenziaren eragilea», nabarmendu dute Ikerbasque fundazioko kideek berria ezagutarazteko argitaratutako prentsa oharrean.



«Heriotza neuronal honen azpian dauden mekanismoak sakon ulertzea funtsezkoa da tratamendu eta diana terapeutiko eraginkorrak bilatzeko. Honelako aurkikuntzek atea irekitzen diote zelula neuronalen galera prebenitzeko terapien garapenari, gaixotasunaren aurrerakada atzeratuz edo saihestuz», gehitzen dute Ikerbasque-etik.

Amaia Arranz ikertzailearen esanetan, «gure aurkikuntzak itxaropentsuak dira eta ikuspegi berriak zabalduko dituzte alzheimerren gaixotasunaren ikerketan. Giza-neuronetan heriotza neuronalaren mekanismo espezifiko bat identifikatu eta balizko tratamendu bat proposatzean, aurrerapauso garrantzitsua ematen ari gara gaixotasun honen aurkako terapia eraginkorrak bilatzeko bidean».

LEHEN MEDIKAMENTUAK

Orain gutxi arte alzheimerren sintomak modu eraginkorrean sendatzen edo arintzen

Euskal Autonomia Erkidegoan, 65 urtetik gorako 48.000 pertsonak dementzia motaren bat zeukaten 2021ean, eta horietako %70ek (36.600 lagun inguruk) alzheimerre zeukaten

Amaia Arranz ikertzailea partaide duen nazioarteko talde batek alzheimerren ezaugarrietako bat den neuronen heriotzari buruzko aurkikuntza garrantzitsua egin du

dituen sendagairik ez da egon, baina, esan bezala, gaixotasunaren inguruko albisteak etengabe sortzen dira komunikabideetan, eta aurtengo udan zeresan handia eman du Donanemab medikamentuak. Alzheimerren garapena mantsotzen omen du, eta nazioarteko ikerketa baten arabera, «inflexio puntua» izan liteke bere tratamenduan. Lecanemab botikaren antzekoa da, Estatu Batuetan onartuta dagoena, baina Europan ez.

Donanemab Eli Lilly farmaziak garatutako antigorputz monoklonal bat da, garunean

Amaia Arranz, Achucarro euskal zentroari atxikitako Ikerbasqueko ikertzailea.
Argazkilaria: IKERBASQUE

beta-amiloide plakak erasotzeko eta kentzeko diseinatua, alzheimerren garapenean eta progresioan paper erabakigarria dutela uste baita. Hedabideetan argitaratu denez, bigarren faseko "Trailblazer-Alz" izeneko ikerketa batean, Donanemabek emaitza oparoak erakutsi zituen beta-amiloidezko plaken pilaketa nabarmen murriztean, plazebo bat jaso zuen kontrol-talde batekin alderatuta.

Aipatu dugun bezala, emaitza horiek Lecanemabekin lortutakoen oso antzekoak dira. Bi sendagai horiek merkaturatzea lortu duten lehenak dira, aurrez beste askok porrot egin ondoren. Antzeko beste farmako askok ezin izan zuten frogatu haien eraginkortasuna saiakuntza klinikoetan. Bestalde, Aducanumab izeneko hirugarren farmako bat onartu zen Estatu Batuetan eztabaida handi baten erdian, baina azkenean frogatu zen, amiloide-plakak kentzeko gaitasuna izan arren, ez zuela lor-

tzen gaixotasunaren progresioa geldiaraztea, eta baztertua izan zen (etengabeko ikerketa prozesu honetan, badaude gaixotasunaren garapenean amiloide-plakak duten garrantzia ezbaian ipini duten ikertzaileak).

"Trailblazer-Alz" ikerketan, guztira, alzheimer goiztiarren sintomak zituzten 1.736 pertsonak hartu zuten parte, eta Donanemab edo plazebo bat jaso zuten zain barnetik lau astean behin. Ikerketaren egileek diote, urte eta erdi igaro ondoren, ikusi zela medikamentua jaso zutenen narriadura %38,6 txikiagoa zela plazebo jaso zutenekin alderatuta.

Gaineratu zutenek, Donanemab jaso zuten pazienteen ia erdiek ez zuten inolako narriadurarik izan saiakuntza klinikoaren lehen urtean. Halaber, datuek adierazten dute medikamentuaren eragina epe luzekoa dela. Amiloide-plakak kendu eta botika plazebo batekin ordezkatu ondoren, narriadura kognitiboak moteltzen jarraitu zuten beste taldearekin alderatuta. Hori abantaila bat izan liteke Lecanemabekin alderatuta, azken hau epe luzeagoan administratzen baita.

Hori bai, alzheimerri buruzko biltzar zientifiko nagusiko datu berrien aurkezpenean, kezka batzuk azaldu zituzten botika itxaropentsu horri buruz: saiakuntza klinikoan hiru pertsona hil zirelako.

Erregistratu ziren albo-ondorio larrien artean, batez ere heriotzen kasuan, plaka amiloideekin lotutako anormaltasunak ikusi ziren, garuneko irudietan ikus daitezkeenak. Anomalia horiei ARIA esaten zaie (ingelesezko siglen arabera), eta garuneko hanturatik hasi eta mikrodoljarioetaino iristen dira.





Esperimentazio fasean, pazienteen %3,7k ARIA kasu larri bat jasan zuen, eta hiru heriotza izan ziren. Kasu horietatik bitan, erasandako pertsonen APOE4 aleloa zuten, APOE genearen aldaera bat, alzheimer gaixotasuna garatzeko arrisku handiagoarekin lotua.

Gainera, oraingoz uste dute sendagai honek gaixotasunaren etapa goiztiarretan dauden pertsonetan soilik erakusten duela eraginkortasuna. Hori dela eta, eta APOE4 genea duten pertsonen kontrako ondorio larriak izateko duten arriskua dela eta, pazienteei proba genetiko bat egitea iradokitzen da, sendagaiaren onura segurua nork izan dezakeen eta tratamendua eskaintzeko heriotza-arriskua handiegia nork duen zehazteko.

APOE4 genea detektatzeko proba genetikoa (alzheimerre duten pazienteen %15ek du) eskuragarri dago espainiar Estatuan, eta horrek Donanemab jaso dezaketen pazienteen baheketa erraztuko luke. Paziente horiek gaixotasunaren etapa goiztiarretan daudenez, asko dute galtzeko, eta ikuspegi horretaz balia daitezke.

PREBENTZIOARI GARRANTZIA

Balizko sendagaiei buruzko ikerketarekin batera, gaixotasuna saihestu edo atzeratzeko prebentzioari buruzkoak ere iritsi zaizkigu azkenaldian. CITA-alzheimer fundazio donostiarrak, esaterako, lan handia egin du biztanleriaren arrisku-profilei buruz eta pertsona batek demenzia izateko duen probabilitatea handitzen edo gutxitzen duten faktoreei buruz ezagutza zabaltzen. Faktore horietako asko osasun kardiobaskularrekin eta bizi-ohiturekin lotzen dira, beraz, alda daitezke. Izan ere, fundazioaren esanetan, hiru demenzia-kasutik bat eskuhartze multimodal egoki baten bidez prebeni daiteke.

Hori oinarri hartuta, erakunde desberdin ugariren lankide-

Orain gutxi arte alzheimerren sintomak modu eraginkorrean sendatzen edo arintzen dituen sendagairik ez da egon, baina aurtengo udan zeresana eman du Donanemab izenekoak

Alzheimerre saihesten lagundu dezaketen prebentzio neurriak ere ikergai dira, eta Donostian proiektu berritzaile bat ipini dute martxan, adinekoen parte-hartzea eskatuz

CITA GO-ON ikerketa-taldeak martxan jarritako proiektuaren aurkezpena. Ezkerretik eskuinera: Arantxa Gorostiaga (UPV/EHU), Usune Etxeberria (BCC), Eneko Goia (Donostiako alkatea), Pablo Martinez-Lage (CITA-alzheimer), Mirian Ecay (CITA-alzheimer) eta Maider Mateo (Biodonostia).
DONOSTIAKO UDALA

tzatik jaio den CITA GO-ON ikerketa-taldeak proiektu bat diseinatu eta abian jarri du Donostian. Ikerketa Europan eta munduan garun-osasuna sustatzeko eta demenzia-arriskua murrizteko lan egiten duen ekimen baten barruan kokatzen da, zahartze aktibo eta osasungarriko estrategien bidez. Horrela, Estatu Batuetan, Latinoamerikan, Txinan eta Singapurren garatutako antzeko proiektuekin bat egiten du.

«CITA GO-ON ekimenarekin erakutsi nahi dugu interbentzioa eta arrisku-faktoreen kontrola, baita ohitura osasungarrien sustapena ere, hala nola ariketa fisikoa, entrenamendu kognitiboa, dieta eta osasun sozio-emozional zuzena, eraginkorrek direla alzheimerre eta narriadura kognitiboko beste modu batzuk prebenitzeko, gaur egun indarrean dauden gomendio orokorrek eta zaintza soziosanitarioekin alderatuta», azaldu zuen Pablo Martinez Lage CITA-alzheimerreko zuzendari zientifikoak, proiektuaren aurkezpen ekitaldian.

Ikerketa aurrera eramateko, 60 eta 85 urte bitarteko 2.000 pertsona inguru behar dituzte. «Parte-hartzaileen erdiek beren kabuz jarraituko dituzte jarraibide horiek, eta bisita mediko osoak izango dituzte proiektuan hasi eta urtebetera eta bi urtera. Beste erdia bi urteko programa batean sartuko da. Bertan, banakako lau hilez behingo bisita medikoetara eta tailerretara joango dira estimulazio kognitiboa sustatzeko, arrisku kardiobaskularreko faktoreak kontrolatzeko, nutrizio-ohiturak hobetzeko, jarduera fisikoa sustatzeko eta adimen emozionala eta osasun psikosoziala hobetzeko. Amaieran, banakako beste

ebaluazio bisita bat egingo da, azterketan parte hartu dutenen bilakaera ebaluatzeko», zehaztu zuen Pablo Martinez Lage doktoreak.

Parte hartu nahi duenak fundazioaren webgunean izena eman behar du edo 943 021 792 telefonora deitu. Ikerketan parte hartzeko, aurrez hautatutako pertsonen posta elektronikoz edo telefonoz egingo zaie zitazioa, hasierako bisita bat egiteko. Azkenean, azterlanean sartzen direnek hasierako ebaluazio-bisita egingo dute esku hartzeko aldiaren aurretik, eta Osasunaren Mundu Erakundeak ezarritako gomendioak jasoko dituzte.

Gainera, Donostiako herritarren arreta erakartzeko, Donostiako Udalak, "Donostiar Ahaztezenen Bila gabiltza" komunikazio-kanpaina abiarazi du, «ikerketa honetan parte hartzen duten pertsona guztiek merezi dutelako inoiz ahaztuak ez izatea». Eneko Goia alkateak nabarmendu zuenez, «Donostiako herritarrentzat balio handia duen ekimena da, gero eta zaharkitua goa dagoen biztanleria izanik, benetan garrantzitsua baita bizitzan zehar sor daitezkeen gaixotasunen prebentzioan eta ikerketan lan egitea». Goiak, halaber, donostiarrei dei egin zien «guztion onurarako izango den proiektu honetan parte hartzera».

Ikerketa-taldea CITA-alzheimer, Euskal Herriko Unibertsitate (SPIN eta Qualiker ikerketa-taldeak), Basque Culinary Center, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Achucarro Neurozientzien Euskal Institutua, Biodonostia Institutua eta Camp Tecnológico erakundeek osatzen dute, eta Suediako Karolinska Institutuaren laguntza eta aintzatespena du.



Leire LAREKI SANCHEZ eta Eneko MENDILUZE PLAZA
Psikopedagogo eta psikologoa



Eneagrama (III): Hiruko Instintiboa

Autoezagutzarako tresna erabilgarri honek **hirunaka sailkatzen ditu eneatiipoak, hiruko emozionala (2,3,4), pentsamenduzkoa (5,6,7) eta instintiboa (1,8,9)**. Haurtzaroan garatu genuen biziraupenerako jokabideak gorputzean energia iturri zehatzak ditu eta erraztasunez ezberdindu daitezke; bihotza, burua eta erraia.

Bihotza energia iturri nabarmenena dutenen artean, emozionalak, esaterako, itxura sozialean jartzen dute arreta eta inguruak beraiekiko duen irudiarekin erlazionatzen dute beraien identitatea. Zentzu honetan, lotsa da egoaren barnean gailentzen den emozioa. Energia iturri nabarmena burua dutenen artean, aldiz, segurtasunari eskaintzen diote arreta, eta beldurra da egoaren barnean eratzen den emozio esanguratsuena. Erraia energia iturri nabarmena dutenen artean, azkenik, errealitatea onartzeko lehian, haserrea da egoaren barnean nagusitzen den emozioa.

Lotsan edo beldurrean baino, haserrean murgilduko gara hurrengo lerroetan:

NORTASUN INSTINTIBOA

Bata, zortzia eta bederatzia ikusmenekoak ez ezik, entzumezkoak eta gorputzaren pertzepziozkoak edo kinestesikoak dira. Sentimenduen arabera ekintzara erraztasunez salto egiteko joera dute, kognitiboki lanketa sakonik gabe. Errealitateari aurre egiten saiatzen den hirukoa da, gauzak hobetu daitezkeenaren sinismenarekin. Inguru bere erara aldatzen saiatzen dira eta oldarkortasun eta barne-errepresio arazoak izatera irits daitezke. Nortasunaren defentsan amorr handia azaleratu dezaketen arren, eneatiipo bakoitzak modu ezberdinean adierazteko joera du:

8ak adibidez, liderra denak, oharkabean bere presentzia energikoki eta indartsu nabarmendu dezake, ez ikusia izatearen bidegabekeria zuzentzeko. 9ak, aldiz, bakezalea, etsi egin dezake eta

sozialki berarengandik espero dena egitera irits daiteke, bere amorrua estaliz edo lurperatuz. Energia blokeatzen du, harmoniaren izenean bere sentimenduak ukatuz. 1ak bestalde, perfektionista denak, justizia oso presente izanik, bere haserrea sozialki zuzen izateko kezkarakin bidera dezake.

Hirurek inguru argi ikusten duten arren, haien beharrekiko barne-ikuspegi distorsionatua izaten dute. Pentsamendu polarrera maiztasunez jotzen dute eta egoera konplexuak «dena edo ezer ez» planteamenduetara murriztu ditzakete. 8aren polarizazio joeran, indartsu sentitzeko «nirekin edo nire kontra zaude» izaerako binomioarekiko joera du. 9a, kontrako bi aukeren artean harrapatuta senti daiteke, blokeatuta, eta 1ak bere errealitatea “zuri edo beltz” ikusteko joera du, “ondo edo gaizki”, “zuzen edo oker”.

Hirurek emozioak erraztasunez fisiko bihurtzen dituzte. 8ak bere emozioak lizunkerian bihurtzeko joera du. 9ak gaitz fisikoak, buruko minak eta logura bihurtzen ditu maiz, eta 1ak emozioak gorputzeko gihar tentsio zurrunen bitartez bilakatzen ditu fisiko.

Nortasun bakoitzaren jatorriari eskaintzen badiogu arreta, hirurek inguruarekiko oharkabean pasa zirela senti dezakete eta beraien mundu goiztiarra indiferentzetat eta tokirik gabeko lekutzat uler dezakete. Ikusezin eta ezezagun sentitu ziren, eta helduak izanik garatu zuten babes sistema zaharkitua bizirik mantendu dezakete. 8ak, bere presentzia puztuz eta handiagotuz konpentsatzen du. 9ak ingurura egokitzten jartzen du arreta, eta 1ak «egin beharko litzatekeenean».

Hiruko honen barne-zauria, beraz, izatearen zentzuari dagokio. Norberaren errekonozimendua galtzeari, hain zuzen, indiferentzia sentitu izanagatik zaurituak daudelako. Eneatiipo hauen erronka orokorra haien beharrez jabetzea da, egoak eraiki zuten babes sistema zintzotasunez behatuz eta lehenetsun pertsonalen motibazioetan kontzientzia jarriz. •



{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Daviden izarra Bruselan, ahularen aldeko etika?

Europako Batasuna sortu aurretik izan zen, AEBak artean aurkitu gabe zirela. Samuel profetak, Jainkoaren aginduz, Israelgo erregetzarako gantzututa, David artzain apalak Goliat filistiar indartsua garaitu eta ondoren, tribu israeldarrak batu zituen. Jainkoak hautatutako herria, gaur egun AEBek ere hautatua, luzaroan mespretxatu ondoren.

Europako Batasuna, jainkoaren esanetara. Alarmak jo du, gaitzespenerako deiadarrak, harekin bat egiten ez duenaren gaitzespena barne. Filistiarren aurka eta Daviden alde, menderen mendetan herri hautatua mespretxatu eta gorrotatu, behin eta berriz egotzi, eta sarraskian abandonatu ondoren.

Nahiago nuke, lerro hauek argitaratzeko, Jainkoaren borondatearen jasotzaileen mendeku gosea baretuko balitz. Edo baretuko balute. Baina irudipena daukat haren jardunbidearekiko ohiko arduragabeke-ria erakusten edo are, xaxatzen ari direla.

Orain Davidek Goliaten antza du, eta filistiarrek dira habailaz eraso dutenak. Eta desesperazioz. Davidek Israel batu eta handia nahi du eta, hartarako, Europako

Batasunaren eta AEBen baldintzarik gabeko laguntza du. Nazioarteko legedia hamarkadatan urratu duen arren, bere Estatuaren oinarritzat jainkoaren borondatea onartu zion nazioartearen legedia.

Zenbait herrialdek –tartean, ai, Errusiak– ikuspegi zabalagoa adierazi beharra argudiatu zuten NBERen bileran, baina ikuspegi horrek susmagarri egiten ditu.

Gazako ghettoak Varsoviakoak baino urte gehiago ditu eta, filistiarrek hainbat urtez han nekez biziraun ondoren, halako batean Azken soluzioa abiatu du David erregeak, *Burdinazko ezpata* izenpean. Eraginkortasunez jarduteko sekretuak kontatuko ote zizkien Adolf Eichmannek urkamendia baino lehen?

Gazako bonbardaketen eta iragarritako inbasioaren errua Goliatena omen da eta haren ikaragarrikeria filistiar guztiek ordainduko dute. Baina zer espero liteke ezer galtzerik ez duenarengandik?

Azken soluzioa abiatu dute eta errua Goliatena dela diote AEBek, baita Europako Batasunak ere. Daviden izarra ikusgai dago Bruselan, Europaren etikaren ikur.

Goliaten ikaragarrikeriaren erruduna David dela dioenik ere ez da falta, baina erru banatzaileek ezetz erabaki dute eta, ondorioz, zuzena da filistiarrek ordaintzea.

Izan ere, habailaz, David artzainaren antigoaleko teknologiaz eraso diote David erregeari, haren segurtasun sistema eta eraginkortasun militar aitzindariak ezustean harrapatuta. Eta hori da krimenik larriena.

Gazako ghettoak Varsoviakoak baino urte gehiago ditu eta, filistiarrek hainbat urtez han nekez biziraun ondoren, halako batean Azken soluzioa abiatu du David erregeak, «Burdinazko ezpata» izenpean

Habailaz eta desesperazioz eraso dute, Daviden leinuak senti dezan zazpi hamarralditan filistiarrek sentitu izan duten ezina, amorrua, mina, desesperazioa. Eta orain hori guztia biderkatuta sentitu behar dute filistiarrek atzera; Goliateg ez ezik, Hakimek, Aminak, Amhedek eta beren familiek.

Goliateg ez omen zituen ondo neurtu bere ikaragarrikeriaren ondorioak, David erregeak ez bezala, nonbait, hark ondo neurtu zuen bere larderia, bere okupazioa, umiliazioak, bonbardaketak... Baina horiek guztiek Goliaten eraso ikaragarria justifikatzen ez badute, eraso horrek zergatik justifikatzen du Daviden Azken soluzioa? •

Donostian 1949an jaioa, ikasketaz ingeniari industrial eta lanbidez prospektibista, Juanjo Gabiña ezagutzen eta esperientzien altxor bat da. Abertzalea, elea-niztuna, munduko hainbat herraldetan bizitakoa eta irakatsitakoa, oparoa da oso bere jarduna. “1489 El mapa vasco del nuevo mundo” nobela argitaratu berri du, fikzioa eta errealitate historikoa uztartuz, euskaldunen iragana ukatzen duten estereotipoen kontrako

astinketa latza dena. Horretaz eta beste hainbat kontuz aritu gara Bergarako Olaso Dorrean.

Nola iristen da prospektiba estrategikoan eta etorkizun bideragarrietan aritzen den aditua balearen bizarrei jarraituz mundu berriaren aurkikuntzara?

Prospektiba estrategikoa etorkizuna ikertzen duen zientzia da, etorkizunean eragiteko, edo ohikoa dugun bezala, etorkizuna sufritu ez dezagun. Euskaraz, behin aditu eta sakon markatu ninduen esaldia erabili ohi dut: «Nora joan ez

dakitenek nekez topatuko dute aldeko haizerik». Nekez presta daiteke etorkizuna, ez baditugu boterearen genealogia baten eskutik etorri eta kamusten gaituzten inertziak aldeaz aurretik ezagutzen, nekez handitu dezakegu maniobrarako tartea, gure geroaren jabe egin ahal izateko.

Horixe galdetzen diet politikariei, arrakasta gutxiarekin, Euskal Herrira egiten ditudan bidaietan: zertarako balio digu euskaldunoi gure iraganaz harro egotea, ez baldin bagara garaiz prestatzen gure etorkizunaz harro egoteko? Egune-

«Zertarako balio digu euskaldunoi gure iraganaz harro egotea, ez baldin bagara garaiz prestatzen gure etorkizunaz harro egoteko? Egunetik egunera bizi gara, gogomira motzeko politika miopeekin»

tik egunera bizi gara, gogomira motzeko politika miopeekin. Badakigu energia eta elikagaiak inflazioan gehien eragiten duten elementuak direla, eta azken 30 urteetan epe luzeko politiken faltaren ondorioz, EAEn adibidez %90eko mendekotasuna dugu inportazioekiko, egungo teknologiek 15 urtetan autosufizienteak izatea ahalbidetuko liguketenean. Ezin da uzta jaso, lehenetik erein ez bada.

Tesi zehatza duzu: ez legoke Ameriketako aurkikuntzarik balea ehizatu eta bakailoa arrantzatzen zuten euskal marinelek aurretik bere existentzia baieztatu ez balute.

Nire tesia eszenatoki logiko eta gertagarriena da. Hori erartortzen da nobela irakurrita. Fikzioa eta errealitate historikoa konbinatzen ditu prospektiba estrategikoaren zientzian hain erabiliak diren koherentzia, kongruentzia, gardentasuna eta egiazko printzipioak zehaztasunez aplikatuz.

Eszenatoki bat ez da unean uneko argazki finko bat, oraingo egoerako puntu batetik iraganean edo etorkizunean dagoen beste batera eramaten gaituen bidea da. Etorkizunerantz bada, prospektiba erabiliko dugu eta iraganerantz bada, atzerabegirakoa. Jende gutxik daki “eszenatokia” hitzak esanahi propioa duela eta frantsesetik datorrela: “scénario”, gidoia esan nahi du. Nobelan, zera egin dut: gehienerako egiantzeko bidea ezarri, errelatoa arrazoizkoa bilaka dadin, ordenarekin eta zentzuarekin beti.

875. urtean Feroe Uhartetan badaude euskal marinelen presentziaren frogak. Horrek mila itsas miliako bidai bat suposatuko luke, garairako



«Iraganaren bultzada balia dezagun erresilientzia nahikoaz kargaturiko etorkizun bat eraikitzeko»

distantzia handia zena. Ondorengo sei mendeetan, Atlantikoaren ipar parteko eremuan nabigatu zuten, non Europa eta Amerikaren arteko distantzia laburragoa den.

Bikingoen espedizioen berri izanik, ehizatze baley segika, euskaldunak Ipar Ameriketarako distantzia erlatiboki laburra zeharkatzera ausartu ziren. Baleen koipearen komertzioan, dudarik gabe, mundu mailako liderrak ziren. Horren froga da artxibo islandiarrek jasotzen duten datua: 1412an uharteko mendebal kostatik 20 euskal baleontzi pasa zirela. Handik, Terranovarako bidaia mila itsas milia baino gutxiagokoa izango zen.

Euskal marinel haiek baleak ehizatze lekua sekula jakinarazi ezin zen sekretu bezala gorde beharko zuten, ezta?

Marinel gehienek ez zuten Atlantikoa zeharkatzeko arrazoirik izango bestaldean zer bait zegoela jakingo ez balute. Arrantzale gehienak sub-artikoko uretara igo eta gero hegoalderantz jaisten ziren baleei segika, Atlantikoko bi kostaldeetan. Nobelak hori argitzen du: Ameriketako aurkikuntza askoz ere sinesgarriagoa da ulertzen badugu euskaldunek lehenago aurkitu eta sekretuan gorde zutela, Europa osoko balearen koipearen komertzioaren aberastasun handi hura babesteko. Urte askotan merkatuaren gaineko monopolioa gorde zuten, hori euskaldunen garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari begirako faktore nabarmena izan zen.

Kontuan hartu behar baita balearen koipea kalitate gorenekoa zela, ez zuen ez kerik ezta usainik ere botatzen. Usain txarra eta etxeko pareta eta

teilatuak belzten zituen txerriaren gantzarekin alderatuz gero, etxeetan kontsumitzeko askoz ere egokiagoa zen. Bere komertzioarekin, euskaldunok Europako erdiko eta iparraldeko portuekin konektatzen ginen, Bordele, Nantes, Rouan, Londres, Bristol, Brujas...

Euskaldunak bale koipearen komertzioaren %70 kontrolatzera iritsi ziren. Negozio biribila zen, baleak ehizatzen zizuten lekuetan ez zeukaten lehiakiderik. Oso ondo gordeta zuten sekretua zen. Berdin gertatzen da egun perretxikozaleekin edo antxoarrantzazaleekin dutenekin.

Balearen ehiza nabigazioaren artean aurrerabide handienetakoa izan al zen?

Dudarik gabe. Nabigazioaren artean eta itsasontzien erai-kuntzan garapen oso garrantzitsua izan zen. Euskaldunak korasta lemaren asmatzaileak izan ziren, itsasontzi handiagoak maneiagarri egin zituzten eta Ozeano Atlantikoan nabigatzea posible egin zuten. "Koka baionarra" izenez ezagutua den ontziari Erdi Aroko itsas arkitekturan garrantzi handia ematen zaio, korasta lema asmatzeagatik.

Arraun lema genuen, istriborreko hegatsen kokatua, gero popan erdiratu zuten, korasta lema izatera pasatuz. Poparen bularra zuzena izatera pasa zen, korastan bilakatuta, lema mugimendu garbiago bat emanda. Horrela, gila luzatu behar izan zuten. Ontzia azkarragoa egin zen eta sortu zen azalera bertikalak ontziaren noraeza gutxitu zuen. Lema mota hau «lema baionarra» edo «*timón a la navarresca*» bezala ere ezagutzen zen. Popa eta brankako gazteluak gehitu zitzaizkion gainegitura gehiga-

rri bezala, masta bakarra eramaten zuten bela karratu batekin. XV. mendetik aurrera, euskal flotaren ontzi guztiek banderan Bizkaiko intsignia eramaten zuten. European, ingeles kronikek jasotzen duten bezala, bi flota garrantzitsu zeuden soilik: ingelesena eta euskaldunena.

Euskaldunak ez ziren marinel potentzia bakarrik, ontziola bikainak ere bazituzten. Diozunez, Zumaiian bakarrik, zazpi. Broma gutxi.

XV. mendean Euskal Herrian 60 ontziolatik gora zeudela zenbatetsi daiteke, eta agian gehiago. Zumaiakoa egia da. Horretan guztian bikingoek asko lagundu gintuzten. Bikingoak Eskandinaviatik etorririko taldeak izan ziren, piraterian eta lurraldeak arpilatzen aritu ziren VIII. mendetik XI.era arte. Europa Atlantikoko kostaldeetan, Mediterraneoan, Itsaso Beltzean, Groenlandian, Islandian, Labradorren... jardun ziren eta, uste denez, IX. eta XI. mendeen artean Lapurdin egon ziren. Agian horregatik daude gurean begi urdinak dituzten hainbeste ilehori.

Kontua da Lapurdi, Nafarroa (Hondarribia bere portua zen), Gipuzkoa eta Bizkaiko euskaldunek ez zutela bere artean mugarik eta bikingoen erro horretatik itsas nabigaziorako ezagutza garrantzitsu askotara bidea izan zutela, itsas erai-kuntzan eta nabigazio arteetan garatutako bidea. Beraien herentzia nagusia *snekkar*, *drakar*, *knorr*, *nef...* ontzien kroskoa eraikitze teknikan ikusi zen. Historiografia tradizionalaren arabera, teknika honek forratu bat sortzean zetzan, alboetan luzetara jarritako egurrezko oholetan gainezarri, bular eta gilen gainean

JUANJO GABIÑA

PROSPEKTIBAN ADITUA ETA IDAZLEA

"1489 El mapa vasco del nuevo mundo"

nobela idatzi du. Thrillerra da, abentura du, eta baleei segika euskal arrantzaleek

Ameriketako aurkikuntzan izan zuten protagonismoa aldarrikatzera dator.

Mikel ZUBIMENDI BERASTEGI

armatuta, edo, ardatz-lema bazeraman, gulan eta korastan.


Eta gainera, sagardoaren ekarpena ere egin genuen, eskorbutoaren kontrako borrokan ezinbestekoa izan zena.

Hala da, sagardoa zen euskal marinelen sendagaia, lurra zapaltzeke hilabeteak pasatzen zituzten eta ez zuten eskorbutoa pairatzen. Nolabaiteko edabe magikoa zen, sagardoari esker, tripulazioa sano eta gaito gabe mantendu zitekeen. Horregatik, itsasontziko so-toak sagardo kupelez beteta joaten ziren, kalkulatzenez, marinela bakoitzak egunean hiru litro edaten zituen. Baina dieta elikagarria ez zuen sagardoak bakarrik, txakolinak ere bazeukan.

Funtsezko bi edari izan ziren. XVI. eta XVII. mendeetan Groenlandia eta Terranovara joaten ziren arrantzaleek kontsumitzen zituzten. Bidaia bederatzi hilabetekoa zen. Terranovako kostaraino bi hilabete eta, bueltan, beste bi. Bidaian arrisku handiak zeuden, besteak beste, eskorbutoa edo antzina deitzen zuten «itsasoko izurria» (C bitaminaren faltak eragindakoa). Balearna bezalako lanbidean ontzia elikagaiez ondo hornitua abiatu behar zen, zeren Labradorren, arraina, ehiza apur bat eta badia batzuk kenduta, ez zegoen elikagaiak lortzeko biderik.

Nobelan Otxoa de Andraka kartografo eta marinela da protagonista, Kolonen espedizioan garrantzi handikoa izan zen Juan Vizcaino de Lakotsaren ikaslea. Bata fikziozkoa eta bestea egiazkoa.

Hasieran, pertsonaia erreal eta fikziozkoekin jokatzea eta bat etortzea erronka iruditu zitzaidan. Baina azkar ikasi nuen,



Argazkiak: Gorka RUBIO | FOKU

horretan asko lagundu didate kontatu dizkiguten istorioetan topa daitezkeen gezur, zehaztasun falta, ahazte eta gehiegikeriek. Vizcaino de Lakotsaz, badakigu euskalduna zela, kartografo handia, gero Santa Maria deituko zen itsasontziaren jabea izan zela eta euskal marinela pila bat ontziratu zituela.

Vizcaino (euskaldunen garai hartako deitura) de Lakotsaren lana goraiatu egin behar da, orokorrean euskaldunena, oso eraginkorra izan zen. Ez zen kasualitate hutsa izan. Viz-

caino de Lakotsak ba al zekien zerbait Islandiako mendebaldeko lurraldeetara iritsi ziren euskal baleontziez? Zergatik alboratu zituen bere negozioak Koloni lehen bidaian laguntzeko eta, bigarrean, zergatik zen itsasontziaren jabea?

Gorka Rosain Unda historiariak kontatu du Juan Vizcaino de Lakotsarekin batera, bere laguntzaile gisa, beste euskal marinela batzuek ere parte hartu zutela Amerikako aurkikuntzan: Juan Ustobia, Pedro Bilbao, Juan Lequeitio

eta bere anaia Txomin. Rosainek dioenez, Juan Vizcaino de Lakotsak ez zuen Kristobal Kolon lagundu bere hirugarren bidaian, baina «eraman zituen sei kapitainetatik lau euskaldunak ziren, eta beste euskaldun asko ere eraman zituen: Lope de Olano; Pedro de Arana, Kolonen koinatua eta Diego Aranaren anaia; Pedro Ledesma, pilotu nagusia; Martin de Arriaran; Fernando Ibarra, bere kultura eta letrak menderatzearen nabarmendu zena; Diego de Portugalete; Martin

«Euskaldunak bale koipearen komertzioaren %70 kontrolatzera iritsi ziren. Negozio biribila zen, baleak ehizatzen zituzten lekuetan ez zeukat lehiakiderik. Oso ondo gordeta zuten sekretua izan zen»



Arrieta; Domingo Vizcaino; Gonzalo Salazar; Diego de Mendoza; Pablo Ledesma; Gregorio Zaldua; Pascual Luzuriaga; Machín Vizcaino; Martin Fuenterrabia eta bigarren bidaiko Domingo de Arana, Migel Larriaga eta Juan de Quijo.

Vizcaino de Lakotsak 1500. urtean bere mapamundi karta ospetsua osatu zuen. Amerikako lehen dokumentu kartografikoa izan zen, garai hartan garrantzitsuena, jakina. Datu nabarmena da, oso gutxi edo ia inork ez dakiena, baina on-

do frogatuta dagoena. Halako informazioa historian ezkutatzen bada, zera garrantzitsua goak ez al dituzte ezkutatu?

Zer dauka Otxoa de Andrakak Juanjo Gabiñarena?

Aitaren partetik euskal marinelen seme, biloba, birbiloba eta hereniloba naiz. Esan daiteke zainetan odola baino kresala daukadala. Aita Portugaletekoa nuen, bere izena Angel zen, abizenez Gabiña Andraka, gerran Bilboko portua bou armatuekin defendatu zuen eusko itsas gudarosteko komandantea izan zen. Benetako gerra heroi bat izan zen, bi heriotza zigorrekin kartzelan erresistitu zuen, izateko bere borondateari eusteagatik. Andraka bere amaren familia zen, Barrika eta Bakiotik zetozen Nafarroako erresumaren aldeko ganboarrak ziren. Leinu horretatik nobelako pertsonaia nagusiarekin bat zetoren arbasoren bat ateratu zen.

Portugaldarrek diote Fernando de Magallaes izan zela, ingelesek Francis Drake kortsarioa, ez diote balentria Elkanori aitortzen. Historia gezur bat dela diozu.

Historiaren gezur handien artean dago Magallaes portugaldarrak edo Drake kortsario ingelesak munduari lehen aldiz buelta eman ziotela. Erabat frogatuta dago Juan Sebastian Elkano euskal marinela izan zela. Baina badakigu mila aldiz errepikatzen den gezurra egia bihurtzen dela, eta historia gezurrez josita dago. Magallaes Filipinetan hil zen –erdibidean geratu zen– eta munduari lehen aldiz buelta eman ziona Elkano da, 1521eko irailaren 9an. Anglosaxoientzat Francis Drake kortsarioa izan zen, bere lapurreta eta krimenetan

Ingalaterrako erreginarekin erdi bana egin zuena. Drakek 1577an eman zion buelta, Elkano baino 56 urte geroago, baina historiaren manipulazailerik askok ezagutza faltarekin jokatu eta Elkano ukatu zuten, Blas de Lezo almirantea ukatu zuten bezala.

Gauza hauek gertatzen dira konkistatzaileek historia idazten dutelako. Horrela, Espainiako historia ez da Gaztelako Erresumaren fundazioaren aurrekariaren eta ondoriozkoen historia baino. Gaztelako Erresumak beste erresumak konkistatu zituen ezkontzen eta batez ere gerraren bidez. Berdin gertatzen da Frantziako Erresumarekin edo Erresuma Batuan Gales, Eskozia eta Irlanda konkistatu zituen Ingalaterrako Erresumarekin. Gero errelatoa idatziko da konkistatzaileen lurraldeak eta konkistatuenak historiaren sortze beretik batuta egon zirela kontatuz, gezur galanta dena.

Eta berdin Ameriketako aurkikuntzaren historiarekin. Sekula ez da ondo kontatu, eta, are, gertakizun askoren narrazioan gezurra esan zen eta gertaerak ezkutatu ziren. Euskaldunon historia ez dugu guk idatzi konkistatzaileek ukatu digutelako, eta, era berean, Gaztelari saldu eta harekin kolaboratu zuten euskaldunak egon zirelako. Baina horrek ez du esan nahi gure balentriak saltzeko arazoak ditugunik. Egia da, bestalde, Iruña-Veleiako aurkikuntza historikoen aurrean erakusten duten isiltasunari jaramon eginez gero, agian nolabaiteko *omertá* bat ezarri dela Euskaltzaindian, Eusko Ikaskuntzan, unibertsitateetan... Epailleengana jotzeak usain txarra izaten du, tranpatia dirudi, eta hitz egin beharko lukeena zientzia da, eta, guztien adostasunik ez badago, zalantza onura aplikatu beharko litzateke.

«Aitaren partetik marinelen seme, biloba, birbiloba eta hereniloba naiz.


Esan daiteke zainetan odola baino kresala dudala. Aita Portugaletekoa nuen, gerran Bilboko portua bou armatuekin defendatu zuen eusko itsas gudarosteko komandantea»

Herri bezala, beharraz bertute egin genuela diozu. Pasorako lurraldea ginen, baliabide natural handirik gabekoa, eta ez genuen besterik: elkarren ondoan jardun eta ahal genuen bezala aurrera egin.

Hori da. Baina ez da gurea kasu bakarra. Herri gehienena izan da, eta da, egun ere. Ameriketara emigratu behar izan genuen, erlijio ordenatan sartu behar izan ginen, europar armadetan mertzenario bezala jarduteko geure burua alokatu, burdina ateratu eta siderurgia landu, itsasontziak eraiki, nekazaritza, itsas komertzioa eta arrantza... Orduan, etorkizuna prestatzea eta bizi osorako iraungo zuten gauzak egitea kultura zen. Gaur, guztiz kontrako da. Egiatan, gure guraso eta aitona-amonek egin zutenaren errentetatik bizitzen ari gara, batzuk besteei begira geratuz, eta beste batzuk zerbait egiten dutenaren plantak eginez, gero gauzak dauden bezala utzi arren. Hori galdu dugu: beste aukerarik ez izateak ematen duen txispa, ahal den bezala batu eta aurrera jotze hori.

Nobelan Johan de Ursua ageri da, Otxoa de Andrakaren lehengusua. Bata Ipar Euskal Herrikoa, bestea Hegoaldekoa. Herri bat eta bakarra, ezkontza mistoak, elkarren arteko lotura naturalak.

Johan de Ursua eta Otxoa de Andraka batuta zeuden gaintzeko euskaldun guztiak bezala. Hizkuntza bera hitz egiten zuten, historia eta kultura berdina zuten. Ez zegoen mugarik, pasaporteak 1920. urtera arte ez ziren indarrean jarri. 1970. urtean, frankismoaren azken urteetan, Nafarroako Unibertsitateko Donostiako Ingeniaritza Eskolan,





Euskal Herriko lehen historia komuna argitaratu genuen. Aurrenekoz ulertu nuen euskaldunok nazio berekoak ginela eguzkiak distiratzten duen argitasun berarekin. Ulertu nuen Johan de Ursua eta Otxoa de Andraka asko ginela, gero eta gehiago izango ginela, kohesio sozialari eutsi eta euskararen eta gure kulturaren nortasun ikurrak indartuz gero. Orduan ulertu nuen etorkizuna ez zela aurreikusiko behar zain genuena ezagutzeko, gure etorkizunaren jabe egiteko balioko lukeen eszenatokia eraikitzekeo baizik.

Deigarria da orduko komunitate juduak zeukan presentzia eta garrantzia.

Euskal Herriko juduak euskaldunak ziren, belaunaldietan hitz egin zuten euskaraz. Bizkaiko lurraldetik modu sektario eta iraingarrian kanporatu zituzten praktikatzan zuten erlijioagatik. Torquemada eta bere Inkisizio Santutik gertuago sentitzen ziren erlijio judua zuten anai-arrebetatik baino.

Balmasedan lehertu zen juduen kontrako gorrotoa. 1199an Gaztelako Erresuma eta

Castro Urdialeseko euskal portuaren arteko bide komertzialean sortutako hiribilduak, ehun urte baino lehenagotik, judutegi propioa zuen. Gehienak Medina de Pomarretik etorritakoak ziren eta kale zaharreko hamahiru etxetan bizi ziren. 50 pertsonako komunitate judu bat 1000 biztanleko herrian.

1486an, juduen kontra antolatutako iskanbila baten ondoren, beren kanporaketa erabaki zen, Gernikako batzarrek berretsi zutena. Pedro Sanchez de Terreros alkatea buru, gizon armatuen kuadrilla batekin gauzatu zen. Bizkaiak aurre hartu zien Gaztela eta Aragoiko Erresumei, hauek 1492an kanporatu zituzten, Gipuzkoa eta Araba neurri bera hartzera behartuz. Nafarroan, 1498an; eta Ipar Euskal Herri-tik ez ziren inoiz kanporatu.

Eta gainera txakolina ekarri zuten.

Horrela azaldu zidaten, bai, eta badirudi egia dela. «Txakolin» hitza otorduen aurretiko bedeinkapenerako erritual hebrear baten hitzetik dator: «*Shehakol*» (Txakolin) eta

«Zergatik ez da kontatzen Kristobal Kolonek Kanadako kostaldean baleak ehizatzen zituzten euskal marinelen ahotik Amerikaren berri bazuten euskaldun askorekin nabigatu zuela?»



«*Shehakol niya*» (Txakolina), fonetika berdina du eta erabilerara oso zehatza. Bedeinkapen osoa honakoa dela gehituko nuke: «*Shehakol Nyá Bidvaro*» (Guztia bere hitzak egindakoa da), Alegia, Jainkoaren hitza.

Judeuk ardo propioa (koxer) behar zuten. Era berean, ardoagatik (Abraham-en garaietatik), Elizari eta Estatuari hamarrenak ordaintzera behartzen ziren. Horregatik, judeuk beren ardo propioa eta ez kontrolatua «txakolin» deitzen dute. Komertzializatu egiten zuten gero, erosleari mahatsondo judutik datorren ardoa dela ohartaraziz, juduak ezin dutelako jentilen (kristauen edo musulmanen) eskuekin egindako ardoa edan, eta Elizari hamarrekoa ordaintzea ekiditen zuten, txakolina ez zelako, berez, ardo bat.

Deigarria da ere euskal marinuek frantziskotarrekin izan zuten harremana.

XV. mendean Flandriatik ateratzen ziren euskal itsasontziak ugariak ziren, Nantese-tik, Rouenetik, Londresetik... Bilbo, Baiona edo Lisboaraino nabigatu eta, han berriz zamatuta, Europa erdialdeko eta iparraldeko portuetara bueltatzeko. Bitxia da zein etxekotuta zeuden frantziskotarren komunitateetan. Elkarrekiko erakargarritasuna zen, frantziskotarrek euskal marinelak komentuetan hartu eta beste herrialdeetako portu hirietan gomendatzen zituzten. Nantesen, adibidez, «*Confrérie de la Contratation*» ermandadea sortu zen, armadore eta merkataria euskaldun eta bretoiak bilduz, eta egoitza frantziskotarren komentuan zegoen.

Azkenik, zure nobelan salaketa latente bat antzematen

da: herri bezala gutxietsi eta, egun ere, egia osoa ez kontatzeko afana igartzen da.

Mito eta legenda asko errealtate kontrastatu bihurtu dira. Nire teoria da kasualitateak gertatzeko aukera urriak izan eta kasualitate asko direnean, zerbait egia dela pentsatu behar dugula, egia osoa ez bada ere, hainbeste kasualitate batera gertatzea ez delako posible. Heinrich Schliemann arkeologo alemaniarrari Troyaren aurkikuntzarekin gertatu bezala, pentsa dezakegu euskaldunen parte hartzerik gabe Kolonek ez lukeela sekula Amerika aurkituko.

Baleen ehiztari hobereenak euskaldunak izan ziren VIII. mendetik ia XIX. menderaino. Batzuek diote euskaldunak ez zirela konkistatzaileak, eta gauzak oso oker zetozenean, Frantziako erregearen zerbitzura kortsario bezala jarduten zirela. Baina joan ziren lekuetan ondo moldatu ziren indigenekin, eta euskal-algonkino pidgin hizkuntza, euskararen eta indigenen hizkuntza edo aldonkinoaren arteko nahasketa, erabiltzen zuten.

Ados nago nolabaiteko salaketa bat antzeman daitekeela diozunean. Argi dago gu gutxiesten saiatu direla eta, egun ere, izan garenaz egia ez esateko afana antzematen da. Nire esku kolpetxo eskaini dut gure iraganaren ukapenaren eta konkistatu gintuztenen hitzezko zartakoak diren estereotipo faltsuen aurrean. Erduzkoa izan den gure iraganaren ikuspegi positiboago eta sortzaileago bat eskaini nahi dut. Etorkizunean honen bultzada baliagarria erresilientzia nahikoaz kargaturiko etorkizun bat eraikitzen jarraitzeko eta ahal dugun gutxien sufritzeko.

Distopia errealitatea da jada

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

Eguraldiaz hitz egiten dugunean, maiz igogailuko hizketaldietan bizilagunarekin edo ezezagun horrekin zertaz hitz egin ez dakigunean erabiltzen dugun errekurtoa da. Nik ez dudanez igogailurik eta normalean edozertaz edozeinekin hitz egiteko arazorik ere ez, eguraldiaz hitz batzuk egin nahi nituzke gaurkoan.

Urri erdialdean gaude eta 30 gradu inguruko tenperaturak ditugu azken egunetan, asteetan. Inguruko oro, eta jendea orokorrean, pozik nabaritzen dut. Ni neu ere halaxe nagoela ezin ukatu. Nahiago

dugu udako giroa negukoa baino, ezta? «Elurra gustuko dut, baina eguraldi hau ederra da», «probestu beharko dugu uda luzatze hau». Horrelakoak entzuten ditut kalean egunotan. Ados, baina uda aspaldi pasa da!! Eta San Martin egunerako hila-bete falta da udaratxoa bizitzeko. Eskuetatik alde egin digu honek lagunak, eta ni benetan kezkatzen hasita nago. Kuadrillako batek bere amaren gereziondoa aurten bigarren aldiz loratzen ari dela esan zidan, udaberrian eta orain.

Aldatzen ari da orain arte ezagutzen genituen urtaroen ordena. Irudipena

dut azken urteotan ez ditugula lau urtaro gure herrian, gutxinaka bi izatera igarotzen ari garela. Eta badakit ez garela aldaketa hauek pairatzen ari garen bakarrak, beste leku batzuetan are bortitzaingoak direla eta ez direla gurean bezain gustukoak.

Honek gainera jada ez du atzera bueltarik, orain urte batzuk alarma gorri denak piztu zirenean ate joka genuen klima aldaketa barruraino dugu sartua. Euskal Herri tropikala jada ez da distopia bat, abestiak dioen bezala, errealitatea da. •

Iritsi da eguna, Joxemiel

**Amagoia
MUJIKA TELLERIA**

Hezkuntza eta hizkuntza erduen eztabaida pil-pilean, politikariak elkarri errietan eta herritarrak tenis partida batean; burua hara, burua hona.

Bitartean, belarri izkinatik gure gazte-txoak entzuten ditugu euskaraz hiru esaldi segidan josi ezinik. Askok euskara jaso dute etxean eta eskolan, gai dira euskaraz fin aritzeko, badute euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko gaitasuna, baina hiru esalditik bat, bost hitzetik bat, gaztelaniaz lehertzen zaie. Nahi gabe bezala. Euskararen alde daude, euskararen aldeko mezuarekin lata ederra eman diete gurasoek eta irakasleek, baina haiei gaztelaniak ihes egiten die burutik mingainera eta hortza artetik kanpora. Zergatik? *Sinmas*.

Lazkao Txiki jakintsuak esana utzi zuten: «Hemendikan urte batzuetara,

denak erdaraz arituko gara, euskaraz ari garelakoan». Iritsi da eguna, Joxemiel.

Sentsazioa daukat –eta ez nuke ezkorra izan nahi– euskaldunak sortzeko gaitasuna makaldu zaigula. Egia da euskaraz dakitenak gero eta gehiago direla, adin batetik beherako herritar denek euskaraz dakitela –horretarako egin du lan hezkuntzak–, baina kalean belarria jarri besterik ez dago krakatekoa sentitzeko. Batzuetan, nahiago nuke gorrarena egin eta ez entzun.


Mina ematen du gurasoak euskaraz eta haur txikiak erdaraz sumatzea, jo eta su. Fruta-dendako ilaran; amak euskaraz, sei urteko neskatoak gaztelaniaz, amak euskaraz, neskatoak gaztelaniaz, amak euskaraz...

Amaren pazientzia infinitua miretsi dut, nik honezkero zaunka egina nion. «Niri euskaraz hitz egin».

Egia esan, ez dakit zein den taktika onena, etengabe euskaraz egiteko agindu edo paso egin. Akaso etengabe matraka ematea ez da ona; agian nazka hartuko diote euskarari; gerta daiteke aginduari kontra egiteagatik erabat bartzertzea euskara... Jakingo bagenu zein den estrategia, zein edabek piztuko duen euskara, nola kargatuko diogun euskarari bateria...

Kontua ez dago erraza, baina asko daukagu jokoan. Uste dut ezin garela errenditu. Euskarari soineko berria josi beharko diogu, egungo gaztetxoentzat erakargarria, *guaya* izan dadin.

Eta politikari batzuek ulertu beharko dute euskara ez dela *guayarena* egiteko txanpona, orain eman, orain kendu. Herri honek euskaraz arnastu nahi du eta horretarako neurriko hezkuntza eta ta-mainako agintariak merezi ditu. •



GAUR8 *ireki gure leihoa*

12. ELKAR SKETCH

Marrazketa maratoizaleek hitzordua daukate Iruñean, urriaren 21ean

Urtero udazkenearekin etortzen da marrazketa maratoiak maite dituztenentzat hitzordua; Elkar Sketch. Aurtengo edizioa hamabigarrena izango da eta urriaren 21erako egin dute deialdia. «Aurten ere Iruñea izango da ekitaldi honen eszenatoki, bertan marrazketarekin eta arte ederrekin zerikusia duen ilustrazioarekiko zaletasun handia dagoelako. Horregatik, aurtengo ere, deialdi arrakastatsua izatea espero dugu», nabarmendu dute antolatzaileek.

Adin guztietako marrazketa zaleek parte hartu ahal izango dute maratoian. Aurretik eman behar da izena, www.elkarsketch.eus helbidean edo Iruñeko Elkar dendetan. Izena emateko azken eguna urriaren 18an izango da eta plazak mugatuak dira.

Marrazketa maratoia urriaren 21ean hasiko da, goizeko 9.30ean, Iruñeko Comedias ka-

 **KULTURA** / Amagoia MUJIKA TELLERIA

Inguruan begiz ikusitakoa eskuz marrazki batean jasotzea da «sketching»-a. Bide horretan, Elkarrek hamabigarrenez antolatu du kaleko marrazketa maratoia. Urriaren 21ean izango da hitzordua Iruñean eta adin guztietako marrazkilariak parte hartu ahal izango dute. Hiria ikusteko eta bizitzeko beste modu bat.

leko Elkar liburu-dendan. Maratoian parte hartzeko materiala banatuko da bertan, 9.30 eta 11.00k bitartean izango da jasotzeko aukera. Parte-hartzaile guztiek material bera izango dute eskura: Moleskine markako koaderno konpultsatu bat, Moleskine arkatx bat, El Bosquecillo tabernan jasotzeko hamaiketarako txartela eta Iruñeko mapa bat. Hain justu, 12.30ean daukate hitzordua jarria El Bosquecillo tabernan, taldeko argazkia ateratzeko eta hamaiketakoa egiteko.

Arratsaldeko 18.00ak bitarte izango dute parte-hartzaileek

agindutako lana egiteko. Banatuko dieten Iruñeko mapa jarraituz, lau gune marraztu beharko dituzte: San Francisco Plaza, El Bosquecillo Parkea, Baluarte eta Pablo Sarasate pasealekua. Maratoiaren oinarrietan zehazten denez, «lehiakide bakoitzak lau leku hauetako bakoitzean marrazki bana egin beharko du gutxienez, baina hauez gain, hiriarekin zerikusia duten nahi adina marrazki aurkeztu ditzakete libretan: barrualdeak, kanpoaldeak, subjektuak, objektuak, eszenak...».

Teknikari dagokionez, Elkarrek lehiakide bakoitzari Moles-



kine koaderno eta arkatx bana emango die. Derrigorrezkoa izango da marrazkiak koaderno horretan aurkeztea, baina marrazketa teknika librea da, bakoitzak nahi dituen margoak eta materialak erabil ditzake.

Lehiaketa hiru kategoriatan banatuko da: lehena 16 urtetik gorako helduentzat; bigarrena, 10-15 urte bitartekoentzat eta, hirugarrena, 10 urtetik beherako haurrentzat.

Helduen kategorian, saria 100 euroko Elkar opari txartela eta Moleskine saria izango da. Gazteen atalean, 70 euroko Elkar opari txartela eta Moleskine saria. Eta haurretan, 50 euroko Elkar opari txartela eta Moleskine saria.

Parte-hartzaileek Moleskine koadernoan jasotako irudien eskubideak Elkarrenak izango dira. Hala ere, lehiaketa bukatu eta bi hilabetera marrazkilariak bere koaderno jaso ahal izango du Elkar liburu-denda batean.



Irudiotan, iazko Elkar Sketch-eko edizioan jasotako unea eta aurtengo kartela.
ELKAR SKETCH



Itsaso RODRIGUEZ

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Adimen artifiziala bai, baita energia kontsumoa ere

Azkeneko hamar urteetan interneteko trafiko globala 20 aldiz hedatu da eta, gure egunerokotasunean adimen artifiziala integratu dugunetik, esponentzialki hazten jarraituko duela dirudi. Igoerarik handiena irudien eta bideoen edukien trukeari lotuta dago, azkeneko urteetako mugikorren kamerak zein internet konexioa hobetu egin dira eta. Hortaz, datozen urteetan sortuko diren edukien kantitatea ere handiagoa izango da.

Datu hauek guztiak zerbitzarietan zentralizatuta daude; zehazki, erabiltzen ditugun sareko zerbitzu digital guztiak, posta elektronikotik hasita ChatGPTraino, nola edo hala erlacionatuta daude zerbitzari horiekin. Munduan zehar zabaltzen diren zerbitzarietarako, posible da informazio guztia “hodeian” gordetzea, gizarteak edozein unetan planetako edozein lekutatik eskura izan dezan. Modu berean, gero eta gaitasun konputazional handiagoa behar dugunez teknologiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, kokapen geografiko desberdinetan banatutako instalazio hauek oso azkar ugaltzen dira, eta horrekin batera azpiegitura horiek funtzionatzeko behar duten energia kantitatea ere bai.

Adimen artifizialak, eskala handiko beste prozesu informatikoen bezala, batera lan egiten duten prozesadore, txartel grafiko, disko gogor eta RAM memoriaren energia-kontsumo izugarria du atzean. Energia hau berriztagarria izatetik urrun dago, izan ere, gure karbono aztarna digitalaren gehiengoa datuak “hodeian” gordetzetik dator. Beraz, adi-

men artifizialaren etorrerarekin eta gaur egun mundu guztiak ahotan duen ChatGPT bezalako plataformak iristearrekin batera, gero eta gaitasun konputazional gehiago behar dugu, horrek sortzen dituen ondorio eta arazo guztiekin: horrelako sareak mantentzeko sekulako energia eta ur kantitatea behar da.

Hain zuzen, ChatGPT eta bestelako adimen artifizialeko sistemek izugarritzko ur kantitatea behar dute egunero, bai datu-zentroa elikatzen duten zentral elektrikoaren kontsumorako, baita hozte-sistema berarentzat ere. Horrek teknologia-enpresa handien –besteak beste, Microsoft, Google edo Amazon– kontsumoak gora egitea eragin du. Adibidez, ChatGPT-ri 5-50 galdera egiten zaizkion bakoitzean, honek litro erdi ur inguru kontsumitzen dituela estimatzen da. Litro erdiko botila batek asko ez dirudien arren, ChatGPT-ren milioika erabiltzaileak kontuan hartzen baditugu, beharrezkoa den ur-kantitatea gehiegizkoa da. Era berean, Google-k uraren erabileran %20ko hazkundea izan duela jakinarazi du, eta hori ere adimen artifizialean egindako lanari dago- kio neurri handi batean.

Microsoft-era bueltatuz, adimen artifizialean liderra izateko, produktuak biziki garatzen ari da, 2030erako karbono-igorle negatiboa izateko konpromisoa hartzearekin batera; hau da, 2030erako igortzen duena baino karbono dioxido (CO₂) gehiago ezabatzeko asmoa du. Helburu hori lortzeko modu bat datu-zentroen funtzionamenduari lotutako

CO₂aren isurketak murriztea da, eta horretarako, Microsoften planen ardatza energia nuklearra da. Zehazki, energia nuklearra bere adimen artifizialaren datu-zentroak elikatze- koez irtenbide gisa erabiltzea da ideia, elektrizitate eta hozte asko behar baitute. Konpainiak lan-eskaintza bat argitaratu du, non energia nuklearreko ingeniari baten bila dabilen, energia garbien proiektu berritzaileak diseinatzeko eta ezartzeko ardura izango duena.

Argi dago adimen artifizialeko sistemen energia-kontsumoaren arazoa errealitate bat dela. Orain, enpresa handiek eskaintzen dituzten alternatibek zain egon beharko dugu hori nola konpontzen duten ikusteko. •



Datuak hodeian gordetzeko, azpiegitura garrantzitsuak behar dira. GETTY

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



FELIX MATURANA. BILDUMA PARTIKULARRA

ITSASOAREN HANDITASUNA HARRAPATU NAHIA

Pentsamendu batzuk itsasoaren aurrean marrazten direla erakutsi zigun Jon Maiak, gero Benito Lertxundik musikatu zituen bertso horiekin. Ez dira idazle, bidaiari, margolari eta argazkilari gutxi izan beren testu eta irudien bidez euskal kostaldeari, itsaslabarrei, portuei, olatuei eta ekaitzei buruzko ikuspegia utzi digutenak.

Gustave Le Gray frantziarra izan zen XIX. mendearen erdialdean bere kamerarekin itsasoaren kemena harrapatu zuen lehena. Euskal Herrian, Donibane Lohizunen bizi zen Ladislas Konarzeweski argazkilari poloniarrek XIX. mendearen amaieran harrapatu zuen olatuen indarra Ipar Euskal Herriko kostaldea kolpatuz.

XX. mendearen lehen herenean, Willy Koçek Schöneweiss, Gregorio Gonzalez Galarza, Ricardo Martin eta Pascual Marinek Donostiako Pasealeku Berrian hausten ziren olatu erraldoi horien argazkiak atera zituzten, eta Federico Scheneidhoferrek, Erreterian bizi zenak, hondoratzeak eta ekaitzak erretratatu zituen Pasaian. Joan den mendeko 60ko hamarkadan, Felix Maturana nafarrak, Donostiako Hernani kalean argazki-denda bat zuenak, olatu horien argazkiak atera zituen Pasealeku Berrian, artikulu honek erakusten duen bezala. Irudi horiek bere erakusleihatetan ikus zitezkeen, non jendea pilatzen zen itsasoaren eta olatuen handitasuna ikusteko, kostaldea jotzen zutenean.



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

irratia.naiz.eus

